



***Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko  
2019-2030 aldirako Plan Orokorren jarraipena.***

***2024. urtea***

**Gipuzkoako  
Foru Aldundia**  
Jasangarritasun  
Departamentua



**Diputación Foral  
de Gipuzkoa**  
Departamento de  
Sostenibilidad

Dokumentuaren egilea: CIMAS, Innovación y Medio Ambiente SLL

2025/07/31

## AURKIBIDEA

<b>A ZATIA: ESPARRU OROKORRA ETA ABIAPUNTUA .....</b>	<b>6</b>
<b>1 SARRERA.....</b>	<b>7</b>
<b>2 XEDEA ETA IRISMENA.....</b>	<b>7</b>
<b>3 PLANARI ERAGITEN DION ESPARRU KOIUNTURALA.....</b>	<b>7</b>
3.1 Lege eta plangintza esparrua.....	7
3.2 Egoeraren adierazle sozioekonomikoak .....	12
<b>4 GIPUZKOAKO HIRI HONDAKINAK KUDEATZEKO 2019-2030 ALDIRAKO PLAN OROKORRA.....</b>	<b>13</b>
4.1 Programak eta jarduerak .....	13
4.1.1 Behatoki programa.....	13
4.1.2 Prebentzio programa .....	14
4.1.3 Kudeaketa programa.....	15
4.1.4 Deuseztatzea optimizatzeari buruzko programa .....	17
4.2 Programaren araberako kostuak .....	17
<b>B ATALA: GIPUZKOAKO HIRI HONDAKINAK KUDEATZEKO PLAN OROKORRAREN BETETZE MAILA EBALUATZEA.....</b>	<b>18</b>
<b>5 AURREIKUSITAKO JARDUEREN BETETZE MAILA.....</b>	<b>19</b>
5.1 Praktiken eta ekintzen araberako betetze mailaren azterketa, 2024. urtea.....	19
5.1.1 Jarraipen orokorra.....	19
5.1.2 Programen araberako jarraipena.....	23
5.2 Betetze-mailaren laburpen orokorra, 2024. urtea .....	67
<b>6 HELBURUEN BETETZE MAILA, 2024. URTEA .....</b>	<b>67</b>
6.1 Prebentzio helburuak .....	67
6.2 Berrerabiltzeko prestatzeko helburuak .....	70
6.3 Gaikako bilketarako helburuak .....	70
6.4 Birziklatzeko helburuak.....	75
6.5 Balorizazio energetikoko helburuak .....	77
6.6 Deuseztatzeko helburuak .....	77
<b>7 GENERO INPAKTUAREN EBALUAZIOA .....</b>	<b>78</b>
<b>C ZATIA: ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK .....</b>	<b>82</b>
<b>8 ONDORIOAK .....</b>	<b>82</b>

## TAULEN AURKIBIDEA

1. taula. Gipuzkoako eta EAeko hiri hondakinen inbentarioa, 2022 (kg/biz urtean eta %) .....	12
2. taula. Behatokiko programan aurreikusitako jarduerak, 2024. urtea.....	13
3. taula. Prebentzio programan aurreikusitako jarduerak, 2024. urtea .....	14
4. taula. Gaikako bilketa programan aurreikusitako jarduerak, 2024. urtea .....	15
5. taula. Berrerabiltzeko prestaketa programan aurreikusitako jarduerak, 2024. urtea.....	16
6. taula. Birziklatze programan aurreikusitako jarduerak, 2024. urtea .....	16
7. taula. Balorizazio material eta energetikoaren programan aurreikusitako jarduerak, 2024. urtea.....	17
8. taula. Deuseztatzea optimizatzeko programan aurreikusitako jarduerak, 2024. urtea .....	17
9. taula. Urteko kostuak guztira, Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Plan Orokorren aurreikusitako programen arabera, 2024. urtea (euroak, 2018) .....	18
10. taula. Jardueren puntuazioak aurrerapen mailaren arabera .....	19
11. taula. 2024an Behatoki programaren barruan egindako jardueren aurrerapen maila .....	20
12. taula. Prebentzio programan 2024an egindako jardueren aurrerapen maila .....	20
13. taula. Gaikako bilketarako programan 2024an egindako jardueren aurrerapen maila .....	21
14. taula. Berrerabiltzeko prestatzeko programan 2024an egindako jardueren aurrerapen maila .....	21
15. taula. Birziklatzeko programan 2024an egindako jardueren aurrerapen maila .....	21
16. taula. Balorizazio programaren barruan 2024an egindako jardueren aurrerapen maila: materialak eta energia.....	21
17. taula. Deusestatzea optimizatzeko programan 2024an egindako jardueren aurrerapen maila .....	21
18. taula. Programetarako aurreikusitako guztizko kostuak eta kostu errealak, 2024. urtea (eurotan, 2018).....	22
19. taula. Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Plan Orokorraren aurrerapen maila, 2024. urtea.....	67
20. taula. Prebentzio helburuen betetze maila, 2024. urtea .....	69
21. taula. Berrerabiltzeko prestatzeko helburuen betetze maila, 2024. urtea.....	70
22. taula. Gaikako bilketako helburuen betetze maila, 2024. urtea.....	72
23. taula. Birziklatzeko helburuen betetze maila, 2024. urtea .....	76
24. taula. Balorizazio energetikoko helburuen betetze maila, 2024. urtea.....	77
25. taula. Deuseztatzearen betetze maila, 2024. urtea .....	77
26. taula. Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Plan Orokorraren ekintzak taldekatzea, ekintza horiek emakumeen eta gizonen berdintasunean inpaktu positiboa izango dutela bermatzeko neurrien arabera. ....	78
27. taula. Ekonomia zirkularraren arloan ikerketa eta berrikuntza proiektuak garatzeko GFAREN beken onuradunak (2019-2024) .....	81

## IRUDIEN AURKIBIDEA

1. irudia. Programen aurrerapen maila, 2024. urtea .....	22
2. irudia. Sorkuntza datuak, Gipuzkoako bilketa motaren arabera banatuta. 2023-2024 urteak.....	68
3. irudia. Gipuzkoa+ gaikako bilketa, hondakin tipologiaren arabera (tonak). 2007-2024 urteak.....	70
4. irudia. Birziklatze datuak, frakzioen eta guztizkoaren arabera, eta gaikako bilketaren tasa + Gipuzkoako gainerako zatien berreskurapena. 2024 vs 2023 .....	71

# A ZATIA: ESPARRU OROKORRA ETA ABIAPUNTUA

1. Sarrera
2. Helburua eta norainokoa
3. Planaren eragin esparru koiunturala.
4. GIPUZKOAKO HIRI HONDAKINAK KUDEATZEKO  
2019-2030 ALDIRAKO PLAN OROKORRA

## 1 SARRERA

Gipuzkoako Foru Aldundiak 2019an onetsi zuen *Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko 2019-2030 aldirako Plan Orokor* berria (GHHKPO 2030). Plan hartan, zenbait helburu, printzipio eta programa ezarri zituen, hondakin gutxiago sortzea helburu gisa harturik, eta, horretarako, prebentzio, kudeaketa eta tratatze maila egokiak izango dira ardatza.

2022an, Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Plan Orokorraren jarraipen dokumentu bat egin zen, eta, han, legezko helburuak zenbateraino bete ziren ebaluatu zen. Hala, 2022an eta 2019-2022 aldian garatutako ekintzak aztertu ziren, eta ekintza horiek GHHKPOn aurreikusitakoaren gainean zenbateraino bete ziren aztertu zen. Orobat, ekintza gehiago txertatzeko beharra balioetsi zen, hori guztia programetan oinarrituriko ikuspegia abiapuntu harturik eta oso kontuan izanda indarrean dagoen legeriatik sorturiko eskakizun eta helburu berriak, bereziki berriki onetsitakotik.

Dokumentu horren ondorioz, ondorioztatu zen Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Plan Orokorrak, 2023-2030 aldian, ez zuela izango planaren oinarri gisa hartutako printzipioak eta helburu estrategikoak aldatu beharrik, eta egokitzapen batzuk baino ez zituela behar izango lurraldez gaindikoa araudi eta plangintza aldaketan ondorioz datozen urteetan bere gain hartu beharreko helburuetan (zenbakien ikuspegitik).

## 2 XEDEA ETA IRISMENA

Dokumentu honen xedea da Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko 2030erako Plan Orokorraren esparruan 2024an egindako jarduerak ebaluatzea (2023an egindako ebaluazio dokumentua kontuan hartuta), eta, hala, horien eta urte horretan lortutako sorkuntza eta kudeaketa emaitzen arteko harremana bilatzea. Hori guztia, Gipuzkoako Lurralde Historikoko ekonomia zirkularraren kontzeptuaren barruan.

## 3 PLANARI ERAGITEN DION ESPARRU KOIUNTURALA

### 3.1 Lege eta plangintza esparrua

Atal honetan, Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Plan Orokorrari aplikatu beharreko legeria aztertzen da, eta zehatzago deskribatzen dira Gipuzkoako Lurralde Historikoari gehien eragiten dioten lege xedapenak. Orobat, eguneratu egiten dira helburuak, 2023ko ebaluazio txostena egin zenetik onetsitako xedapen eta plan berriekin bat etorriz.

2024ko urriaren 31tik txosten hau idatzi den datara arte, garapen naturala izan dute hondakinei buruzko arau dokumentuek eta dokumentu estrategikoek, bai eta hondakinen kudeaketari eragiten dioten arau testuek ere. Estatuan, aurrera jarraitu beharra dago Europak azken urteetan eskatutako arau, plan eta estrategiak garatzen eta ezartzen. Jada hasita daude airearen kalitatea, industria emisioak eta beste zenbait zuzentarau estatuko lege ordenamendura ekartzeko lanak, eta lanean ari dira, berebat, ingurumen ebaluazioari buruzko Legean eta Hondakinen Legean etorkizunean egin beharreko eguneratzeak identifikatzeko.

Atal honetan, horietako bakoitza aztertzen da, eta ebaluatzen da garapen estrategiko eta arau aldaketa horiek zenbateraino eragiten dioten Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Plan Orokorrari. Azterketaren irismenak Europa, estatua, Euskal Autonomia Erkidegoa eta lurralde historikoa hartzen ditu, bai arau xedapenei eta estrategiei dagokienez, bai plan eta programei dagokienez.

Hauxe da azterketa aldi onetsitako arau eta plangintzen zerrenda:

- *Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2023/1542 (EB) Erregelamendua, 2023ko uztailaren 12koa, pila eta bateriei eta horien hondakinei buruzkoa, 2008/98/EE Zuzentaraua eta 2019/1020 (EB) Erregelamendua aldatzen dituena eta 2006/66/EE Zuzentaraua indargabetzen duena<sup>1</sup>.*

59. artikuluan ezartzen duenez, “Pila edo bateria eramangarrien ekoizleek edo —baldin eta 57. artikuluan 1. apartatuaren arabera izendatu badira— ekoizlearen erantzukizunaren arloan eskumena duten erakundeek gutxienez lortu edo modu iraunkorrean mantendu beharko dituzte pila edo bateria eramangarrien hondakinekin loturiko helburu hauek: a) 2023ko abenduaren 31rako % 45; b) 2027ko abenduaren 31rako % 63; eta c) 2030eko abenduaren 31rako % 73”.

- *Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2025/40 (EB) Erregelamendua, 2024ko abenduaren 19koa, ontziei eta ontzi hondakinei buruzkoa, 2019/1020 (EB) Erregelamendua eta 2019/904 (EB) Zuzentaraua aldatzen dituena eta 94/62/EE Zuzentaraua indargabetzen duena<sup>23</sup>.*

Erregelamendu horrek ontzien bizi ziklo osorako baldintzak ezartzen ditu, ingurumen jasangarritasunari eta etiketatzeari dagokienez, merkatuan sartu ahal izateko. Halaber, zenbait betekizun ezartzen ditu gai jakin batzuei buruz, hala nola ekoizlearen erantzukizun zabaldua, ontzi hondakinen prebentzioa (esaterako, beharrezkoak ez diren ontziak murriztuz eta ontziak berrerrabiliz edo betez) eta ontzien hondakinak biltzea eta tratatzea (birziklatzea barne).

Helburu nagusi gisa ezartzen du *per capita* sortutako ontzien hondakinak gutxienez % 5, % 10 eta % 15 murriztea 2030erako, 2035erako eta 2040rako, hurrenez hurren (pertsona bakoitzeko 2018an sortutakoak hartzen dira erreferentzia gisa).

Hauek dira erregelamenduan jasotako beste helburu batzuk:

- Gehienbat PETarekin fabrikatutako plastikozko ontziek gutxienez % 30 plastiko birziklatua edukiko dute 2030erako, eta 2040rako, berriz, % 50.
- Osagai nagusia PETa ez duten plastikozko ontziei dagokienez, gutxienez % 10 plastiko birziklatua izan beharko da 2030erako, eta 2040rako, berriz, % 25.
- Edarietarako erabilera bakarreko plastikozko botilen kasuan, plastiko birziklatuak gutxienez % 30 izan beharko du 2030erako, eta 2040rako, berriz, % 65.
- Gehienbat PETarekin fabrikatutakoak ez diren plastikozko ontzien, osagai nagusia PET ez dutenen eta edarietarako erabilera bakarreko plastikozko botilen kasuan, plastiko

---

<sup>1</sup> <https://www.boe.es/doue/2023/191/L00001-00117.pdf>

<sup>2</sup> <https://www.boe.es/buscar/doc.php?id=DOUE-L-2025-80087>

<sup>3</sup> <https://www.miteco.gob.es/es/calidad-y-evaluacion-ambiental/participacion-publica/consulta-publica-previa-del-proyecto-de-nuevo-real-decreto-sobre.html>

birziklatuaren edukiak gutxienez % 35 izan beharko du 2030erako, eta 2040rako, berriz, % 65.

Erregelamenduaren V. eranskinean, erabilera bakarreko plastikozko ontzien formatu jakin batzuk baliatzeko murrizketak ezartzen dira. Ontzi mota hauek murrizten ditu: saltokietan erabiltzen direnak botila, pote, lata, poto, tarrina eta paketeetan saldutako produktuak multzokatzeko, erosotasuna eskaintzeko ontzi gisa diseinatuak, kontsumitzaileei produktu bat baino gehiago erosteko aukera ematen dietenak edo horretara adoretzen dituztenak; aurrez ontziraturako fruta eta barazki freskoetarako erabiltzen direnak, 1,5 kg baino gutxiagoko kantitateetan; ostalaritzaren eta sukaldaritzaren sektorean (HORECA kanala), mugatu egiten dira lokalen barruan bete eta kontsumitutako elikagai eta edarietarako ontziak, edo gozagarri, kontserba, saltsa, kaferako esne, azukre edo ongailu gisa erabilitako dosi edo errazio indibidualak dituztenak; produktu kosmetiko zein higieniko eta garbiketa produktu etarako erabiltzen direnak, ostatuaren sektorean erabiltzeko; eta plastikozko poltsa oso arinak, salbu eta higie arrazoiengatik beharrezkoak diren plastikozko poltsa oso arinak edo soltean saltzen diren elikagaietarako ontzi gisa ematen direnak, horiek erabiltzeak elikagaiak alferrik galtzea saihesten laguntzen duenean.

Erregelamendu hori onetsi ondotik, beharrezkoa da ontziei buruzko Errege Dekretua berrikustea, edukia egokitu ahal izateko.

- [\*1093/2024 Errege Dekretua, urriaren 22koa, kudeatzen dituen tabako filtrodunen produktu hondakinak eta tabako produktuekin erabiltzeko filtroen hondakinak, betiere plastikoa badute eta erabilera bakarrekoak badira\*](#)<sup>4</sup>

1093/2024 Errege Dekretuak tabako produktu filtrodunetatik eta tabako produktuekin konbinatuta erabiltzeko merkaturatutako filtroetatik sortutako hondakinei aplikatu beharreko araubide juridikoa ezartzen du, betiere produktu horiek plastikoa badute eta erabilera bakarrekoak badira. Helburua da produktu horiek galtzeak, botata uzteak edo behar ez bezala deuseztatzeak ingurumenean sorturiko inpaktua prebenitzea eta murriztea.

Helburu horrekin, batez ere hondakinon ekoizpena prebenitzeko neurriak ezartzen dira, eta, ondoren, horien kudeaketa hobetzeko neurriak, ekonomia zirkular bat lortzeko trantsizioan laguntzeko. Udalek aplikatu beharreko prebentzio neurri horietako bat da hondartzetan erretzeko mugak ezarri ahal izatea. Erretzeko murriztapen horiek udal ordenantzetan jaso ahal izango dira, arau hausteen eta zehapenen erregimenari jarraikiz.

Horretaz gainera, eskumena duten herri administrazioei eskatzen zaie sistema publikoak izan behar dituztela tabako produktu filtrodunak eta filtroak kontsumitu ondoren biltzeko, produktu horiek botata utzi ohi diren lekuetan. Hondakinak bildu ondoren, gainerako frakzioarekin batera kudeatuko dira.

- [\*1/2025 Legea, apirilaren 1koa, elikagai galera eta xahuketa prebenitzekoa\*](#)<sup>5</sup>.

---

<sup>4</sup> <https://www.boe.es/boe/dias/2024/10/23/pdfs/BOE-A-2024-21709.pdf>

<sup>5</sup> <https://www.boe.es/buscar/pdf/2025/BOE-A-2025-6597-consolidado.pdf>

Lege horren xedea da elikagaien kateko eragile guztiek elikagai galera eta xahutzea prebenitzea eta murriztea. Hala, soluzioen lehentasun hierarkia bat ezartzen du eta erantzuna ematen dio elikadura sistemaren barneko ekoizpen eta kontsumo arduratsurako helburuari, 2030 Agendan jasotakoaren ildotik.

Helburu espezifiko gisa, proposatzen da argi eta garbi definitzea elikagaiak galtzearen eta xahutzearen arteko aldea, elikagai dohaintza eta birbanaketa sustatzea, elikagaiak galtzearen eta xahutzearen kausak zein ondorioak aztertzea, eta elikagai xahuketaren neurketa kuantitatiboa eta kualitatiboa hobetzea.

Gainera, helburu kuantitatibo bat ere ezartzen du: 2030erako pertsonako elikagai hondakinak % 50 murriztea txikizkako salmentan eta kontsumitzaileen salmentan, eta ekoizpen eta hornidura kateetan, berriz, % 20 murriztea elikagai galerak, 2020arekin alderatuta.

10. artikuluan, administrazio publikoentzako betebeharrak espezifiko batzuk jasotzen dira. Zehazki, honako hauek:

- Elikadura kateko gainerako administrazioekin eta eragileekin lankidetzan aritzea elikagaiak galtzearen eta xahutzearen aurkako borrokan.
- Dibulgazio eta sustapen kanpainak egitea, elikagaien kontsumo arduratsua sustatzeko eta elikagaiak galtzearen eta xahutzearen alorrean prebentzioa eta murrizketa sustatzeko.
- Jardunbide egokien gidak egitea, elikagaien kudeaketa hobetzeko eta, hala, elikagai gutxiago galtzeko eta xahutzeko.
- Informazioa eskaintzea elikagai galerak eta xahutzeak prebenitzeko programei buruz.
- Elikagai galerak eta xahutzeak prebenitzeko eta murrizteko plan ereduak elikagaien kateko eragileen eskura jartzea.
- Kontsumitzaileak trebatzea eta sentsibilizatzea elikagaiak xahutzearen inguruko kontuetan, menuak eta erosketak hobeto planifikatzeko, erosketak jasagarriak egiteko (hala nola elikagai freskoak, sasoikoak, hurbilekoak edo tokikoak), sukaldean berriro aprobetxatzea bultzatzeko, biltegiatzeko jardunbide egokiak indartzeko, iraungitze eta kontsumo datak behar bezala interpretatzeko, eta birziklatzeko eta ontziratze materialak ezagutarazteko.
- Hondakin prebentzioa sustatzea eta kontsumitzaileari kontsumo ohitura arduratsuen berri ematea.

Giza kontsumorako egokiak diren elikagaiak ematen eta birbanatzen jarduten duten gizarte ekimeneko enpresa eta erakundeei aholkuak eta informazioa ematea, bai eta irabazi asmorik gabeko beste erakunde batzuei ere.

11. artikuluan administrazio publikoentzako betebeharrak espezifikoak jasotzen dira. Bestek beste, ekintza hauek biltzen dituzte: herritarrak eta enpresa sektorea sentsibilizatzea eta prestatzea; elikagai soberakinak prebenitzeko eta bideratzeko negozio berrien sorrera sustatzea; ikerketa eta azterketa; sorkuntza prebenitzea erraztuko duten sare publiko-pribatuak sustatzea eta abar.

Bestalde, 17. artikuluan elikagai galerak eta xahutzeak prebenitzeko eta murrizteko politikaren plangintzarekin lotutako alderdiak jasotzen dira. Lehen xedapen gehigarrian, berriz, elikagaien hondakinen kuantifikazioarekin lotutako alderdiak.

Lege horrek, administrazio publikoentzako betebeharrak ezartzeaz gainera, betebeharrak eta neurriak arautzen ditu ostalaritzako eta jatetxeetako enpresei zuzendurik (8. artikulua), irabazi asmorik gabeko gizarte ekimeneko enpresa eta erakundeei zuzendurik (9. artikulua), edo kontsumitzaileari elikagaiak saltzen dizkieten enpresei zuzendurik (12. artikulua).

· *Hondakinei buruzko esparru zuzentaraua berrikusteko proposamena*<sup>6</sup>.

2025eko otsailean, Kontseilu Europarreko Lehendakariak eta Europako Parlamentuko ordezkariak behin-behineko akordio bat lortu zuten Hondakinei buruzko Esparru Zuzentarauaren berrikuspen espezifikoa buruz. Haren bidez, 2030erako elikagai hondakinak murrizteari loturiko EBren helburuak ezarri ziren, bai eta ehungintza sektorean jasangarritasuna lortzera eta hondakin gutxiago sortzera bideratutako neurriak ere.

2024an hartutako akordioan ez bezala, elikagaiei dagokienez bilera horretan ezarri zen hondakin horien murrizketa kalkulatzeko helburuek 2021. eta 2023. urteak hartuko dituztela oinarri gisa. Gainera, EBko herrialdeek neurriak hartuko beharko dituzte, hondakinak prebenitzen eta kudeatzen eginkizun garrantzitsua duten operadore ekonomikoek saldu gabeko elikagaiak ematen dituztela bermatzeko, betiere giza kontsumorako seguruak badira.

Ehungintzaren sektorean, bidezko lehia baldintzak ezarri ziren, eta enpresa guztiak sartu ziren ekoizlearen erantzukizun hedatuko programen esparruan. Esparru bateratu horren babesean, enpresa guztiek —eta horien artean txikiak— eskura izango lituzkete ehungintza produktuen hondakinak egokiro tratatzeko behar diren baliabideak eta azpiegiturak.

Administrazio karga murrizte aldera, mikroenpresek urtebete gehiago izango dute betebeharrak betetzeko ekoizlearen erantzukizun hedatuko programak ezarri ondoren.

*Eguneratu gabe dagoen arau esparruari* dagokionez, 2025ean aurreikusita dago Hondakinak Kudeatzeko Estatuko Esparru Plana eta Hondakinak Prebenitzeko Estatuko Programa<sup>7</sup> onestea. Era berean, aurreikusita dago erabiltzen ez diren pneumatikoen Errege Dekretua izapidetzea eta onestea, baita beste zenbait arau berrikustea ere: 679/2006 Errege Dekretua, olio industrialei buruzkoa; pilei eta bateriei buruzko Errege Dekretua, 1542/2023 Erregelamendura egokitzeko; tresna elektriko eta elektronikoen hondakinei buruzko Errege Dekretua, 2024/884 Zuzentarauaren transposizioa egiteko (hondakin, altzari eta tresnen kudeaketa eta haien hondakinen kudeaketa arautzea); 7/2022 Legea Funtsezko Lehengaien Erregelamendura egokitzea; eta Ekonomia Zirkularreko II. Ekintza Plana aldatzeko lanak hastea<sup>8</sup>.

Era berean, badira amaitzeko prozesuan dauden zenbait arau<sup>9</sup>, zeinak loturik baitaude ekoizlearen erantzukizun areagotuari buruzko errege dekretuekin (ehunak eta oinetakoak, eta haien hondakinak kudeatzea; arrantza aparailuak; paper zapi hezeak eta puxikak):

---

<sup>6</sup> <https://www.consilium.europa.eu/es/press/press-releases/2025/02/19/council-and-parliament-agree-to-reduce-food-waste-and-set-new-rules-on-waste-textile/>

<sup>7</sup> (EPE AMAIERA 2025/05/14) Hondakinak Prebenitzeko Estatuko Programaren kontsulta eta jendaurreko informazioa

<sup>8</sup> <https://www.miteco.gob.es/es/calidad-y-evaluacion-ambiental/participacion-publica/ii-plan-de-accion-de-economia-circular.html>

<sup>9</sup> Partaidetza publikoa

- *Paper zapi hezeen eta globoen hondakinak kudeatzeari buruzko Errege Dekretuaren proiektua<sup>10</sup>.*
- *Ehun eta oinetako hondakinak kudeatzeari buruzko Errege Dekretuaren proiektua<sup>11</sup>.*
- *Plastikoa duten arrantzarako gailuen hondakinak kudeatzeari buruzko Errege Dekretuaren proiektua<sup>12</sup>.*

### 3.2 Egoeraren adierazle sozioekonomikoak

ADEGIren *Gipuzkoako koiuntura ekonomikoa, 2024ko urtarrila* txostenean jasotako datuen arabera, Gipuzkoako **ekonomia** % 1,8 inguru hazi zen 2023an, aurreko urtearekin alderatuta. Hazkunde horrek nolabaiteko motelaldia izan du aurreko urteekin alderatuta (% 4,3 hazi zen 2022an, 2021ean, berriz, % 5,9), baina garrantzitsua da gogoraraztea ekonomiak 2020an izandako jaitsiera % 9,9ra iritsi zela. Hala ere, ondoz ondoko hiru urteko susperraldiari esker, 2023an, Gipuzkoako barne produktu gordinak % 1,3an gainditu zuen 2019ko pandemia aurreko maximoa.

**Enpleguari** dagokionez (lanaldi osoko lanpostu baliokideetan neurtuta), 2023an, batez beste, igoera % 1,5 edo % 1,6 ingurukoa izan zen, aurreko urtearekin alderatuta.

**Udal hondakinen kudeaketari** dagokionez, Gipuzkoako eta Euskal Autonomia Erkidegoko azken urteko datuak eta 2022ko EAEkoak alderatzen baditugu, ikusiko dugu Gipuzkoan % 9an baino gehiagoan gainditzen duela autonomia erkidegoko tasa. Gipuzkoako deuseztatze datuak hartzen baditugu ere, nabarmen hobeak dira EAEko tasekin alderaturik. Gipuzkoak hiri hondakinen % 3 baino ez du deuseztatzen, eta EAEn, berriz, % 18 ingurukoa da tasa hori.

1. taula. *Gipuzkoako eta EAEko hiri hondakinen inbentarioa, 2022 (kg/biz urtean eta %)*

Lurraldea	Birziklatzea	Balorizazio energetikoa	Deuseztatzea	Galerak eta biltegitratzea	Guztira
Gipuzkoa	235 (% 54)	186 (% 43)	10 (% 2)	0,2 (% 0)	432
EAE	189 (% 42)	136 (% 30)	76 (% 17)	46 (% 10)	446

<sup>10</sup> <https://www.miteco.gob.es/content/dam/miteco/es/calidad-y-evaluacion-ambiental/participacion-publica/anexos/sgresiduos/toallitas-y-globos/250527%20Borrador%20Texto%20RD%20Toallitas%20y%20Globos.pdf>

<sup>11</sup> <https://www.miteco.gob.es/es/calidad-y-evaluacion-ambiental/participacion-publica/consulta-publica-previa-del-proyecto-de-real-decreto-sobre-gesti0.html>

<sup>12</sup> <https://www.miteco.gob.es/es/calidad-y-evaluacion-ambiental/participacion-publica/consulta-publica-previa-del-proyecto-de-real-decreto-sobre-gesti.html>

Gipuzkoako 2024ko Hondakinen Inbentarioaren ondorio nagusiak dira urte hartan % 52,77koa izan zela birziklatze tasa, hau da, 2025erako Europako % 55eko helburua betetzetik oso gertu. Goranzko joera argia nabari da, hortaz, ehuneko 10,51 puntu igo baita tasa hori 2015etik. Gaikako bilketari eta errefusa berreskuratzeari dagokionez, indizea % 59,22koa da. Horrek adierazten duenez, Gipuzkoako hondakinen kudeaketa ereduak sendotzen jarraitzen du urtetik urtera, eta eredu hori erreferentzia ari da bihurtzen hala Euskadin nola Europan.

## 4 GIPUZKOAKO HIRI HONDAKINAK KUDEATZEKO 2019-2030 ALDIRAKO PLAN OROKORRA

Jarraian, Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Plan Orokorreko programen deskribapena eta horietako bakoitzaren jarduera zerrenda jasotzen da, 2024rako aurreikusitako gauzatze epea dutenak nabarmenduta.

### 4.1 Programak eta jarduerak

#### 4.1.1 Behatoki programa

Taula honetan jaso dira Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Plan Orokorren indarraldian programa hau betetzeko aurreikusitako ekintzak, eta, zehazki, 2024rako aurreikusitakoak.

*2. taula. Behatokiko programan aurreikusitako jarduerak, 2024. urtea*

Erreferentzia	Ekintza	2024rako aurreikusia
BEHATOKIA-1	Interesgarriak izan daitezkeen eta areagotzen ari diren hondakinen karakterizazioak egitea eta toki erakundeek eta kudeatzaileek eginiko karakterizazioak biltzea.	BAI
BEHATOKIA-2	Gipuzkoako hondakinen sorkuntza eta gaikako bilketako datu basea kudeatzeko sistemen irizpideak bateratzea, sistema horiek hobetzea, mantentzea eta ustiatzea: SIGRU, web plataforma eta beste aplikazio batzuk.	BAI
BEHATOKIA-3	Web edukiak eguneratzea eta hondakinen sorkuntzari eta gaikako bilketari buruzko aldizkako txostenak argitaratzea. Alerta goiztiarreko txostenak egitea (2018/850 Zuzentaraua)	BAI
BEHATOKIA-4	Behatokiaren Mahaia osorik garatzea organo tekniko eta aholku emaile gisa, eta gaikako lantaldeak sortzea eragile interesdunekin.	BAI
BEHATOKIA-5	Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko 2019-2030 aldirako Plan Orokorren jarraipen txostenak idaztea	BAI
BEHATOKIA-6	Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko 2019-2030 aldirako Plan Orokorren informazio, jarraipen eta ebaluazio batzordearen garapena.	BAI
BEHATOKIA-7	Hondakinen hierarkia betetzera bideratutako informazio, sentsibilizazio eta komunikazio plan bat egitea eta garatzea.	BAI
BEHATOKIA-8	Hondakinak Prebenitzeko Europako Astea egitea.	BAI
BEHATOKIA-9	Zenbait udalerrik egindako esperientzia arrakastatsuak behatokiaren bidez identifikatzea eta zabaltzea. Bilketako jardunbide onenak zabaltzea.	EZ

Erreferentzia	Ekintza	2024rako aurreikusia
BEHATOKIA-10	Hiri Hondakinak Koordinatzeko Organoarekin koordinatzea	BAI

#### 4.1.2 Prebentzio programa

Taula honetan jaso dira Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Plan Orokorren indarraldian programa hau betetzeko aurreikusitako ekintzak, eta, zehazki, 2024rako aurreikusitakoak.

3. taula. Prebentzio programan aurreikusitako jarduerak, 2024. urtea

Erreferentzia	Ekintza	2024rako aurreikusia
PREBENTZIOA-1	Hondakinak sortzeagatiko ordainketa politikak bultzatzea, herritarrei eta merkataritza eta industria sektoreei zuzenduta.	BAI
PREBENTZIOA-2	Gipuzkoako moda jasangarriko klusterra sustatzea (GK Green Fashion): jasangarritasun irizpideetan sakontzea, katalogoa zabaltzea diseinatzaile eta enpresa gipuzkoar gehiagorekin; I+G+Bko ekintza pilotuak bultzatzea, sustatzeko eta ikusarazteko ekintzak (Moda Jasangarriaren Desfilea, tokiko marka berriak garatzeko espazioak, etab.); kontsumo arduratsuko tresnak eta abar nazioartekotzea eta zabaltzea, beste kluster eta eragile batzuekin lankidetzan (Gipuzkoa de Moda, Slow Fashion Next...).	BAI
PREBENTZIOA-3	Etxeetan eta merkataritzan kontsumo arduratsua sustatzea, tokiko produktua, konponketa, trukea eta bigarren eskuko produktuak sustatuz.	BAI
PREBENTZIOA-4	Gipuzkoako Foru Aldundian erosketa berde eta zirkularraren programa bultzatzea, berrerabilitako eta birziklatutako produktuak eta materialak sar daitezten: produktuak, zerbitzuak, obrak eta instalazioak.	BAI
PREBENTZIOA-5	Ekodiseinua bultzatzea	BAI
PREBENTZIOA-6	Gipuzkoako Foru Aldundiaren eraikin publikoetan ingurumena kudeatzeko sistemak bultzatzea: sortutako hondakinak minimizatzea eta kudeatzea	BAI
PREBENTZIOA-7	Mankomunitate, udal, enpresa eta irabazi asmorik gabeko elkarteentzako prebentzio, gaikako bilketa, berrerabiltzeko prestakuntza eta birziklapenaren arloetako laguntzen foru programari eustea (elkarrekiko norgehiagokako dirulaguntzak eta lankidetzaren hitzarmen izendunak).	BAI
PREBENTZIOA-8	Gazteentzako I+G+Bko beken foru programari eustea: prebentzioa, produktu eta zerbitzuen ekodiseinua, berrerabiltzeko prestakuntza, gaikako bilketa, birziklatzea eta balorizazioa.	BAI
PREBENTZIOA-9	Azken Minutua programa indartzea Gipuzkoako Elikagai Bankuaren (GEB) bidez: emileen kopurua handitzea eta aprobetxatzeko formula berriak.	BAI
PREBENTZIOA-10	Herritarren sentsibilizaziorako kanpainak: etxean eta jatetxeetan xahutzea prebenitzea (Gourmet Bag).	BAI
PREBENTZIOA-11	Ostalaritzaren, jatetxeen, catering zerbitzuen eta bestelako sortzaile batzuen sektoretik datozen elikagaien soberakinak biltzeko eta banatzeko sare bat bultzatzea. Sare hori gizarte laguntzako zentroetara zabaltzea.	BAI
PREBENTZIOA-12	Elikadura soberakinen sorkuntza eta prebentziorako adierazleen jarraipena. Diagnostikoa eguneratzea.	BAI
PREBENTZIOA-13	Prebentzioko eta gaikako bilketako irizpideak sartzeko eta zabaltzea sukaldaritzako hezkuntza guneetan: sortutako azpi produktuak eta gastronomia sorkuntzan egindako ikerketak, azpi produktuak berrerabiltzea.	BAI

Erreferentzia	Ekintza	2024rako aurreikusia
PREBENTZIOA-14	Herritarrak sentsibilizatzeko kanpainak egitea, ontzi hondakin gutxiago sortzeko erosketa jardunbide egokiak sustatzeko: erosketarako ontzi berrerabilgarriak, ontziratu gabeko produktuak, plastikozko poltsak, ontzi motak eta birziklagarritasuna, etab.	BAI
PREBENTZIOA-15	Txorrotako uraren kontsumoa sustatzea herritarren artean, oro har.	EZ (amaitua)
PREBENTZIOA-16	Itzuli daitezkeen botilen erabilera sustatzea uraren, sagardoaren eta ontziratutako ardoaren sektoreetan.	BAI
PREBENTZIOA-17	Salmentarako jardunbide egokiak sustatzea, merkataritza sektorean ontzi hondakin gutxiago sortzeko.	BAI
PREBENTZIOA-18	Herritarrak sentsibilizatzeko kanpainak sustatzea, etxeko hondakin arriskutsuak prebenitzeko.	BAI
PREBENTZIOA-19	Gipuzkoako merkataritza eta industria sektoreen hondakinak prebenitzeko zerga pizgarrien azterketa egitea.	EZ (amaitua)
PREBENTZIOA-20	Sakabanatutako zaborra prebenitzea eta murriztea: sakabanatutako zaborraren jatorri fokua aztertzea, ibaietan, hondartzetan eta itsasoan zaborra prebenitzeko eta murrizteko neurriak definitzea eta garatzea, eta herritarrak sentsibilizatzeko neurriak hartzea.	BAI
PREBENTZIOA-21	Etxekoak ez diren sorgailuak murriztu, berrerabili eta birziklatzeari buruzko esperientzia pilotuak egitea (borondatezko akordioak eragile ekonomikoekin) Birziklatze Klusterraren esparruan.	BAI
PREBENTZIOA-22	Birziklatutako eta berrerabilitako produktuak bultzatzea, eta, horretarako, obra eta zerbitzuen kontratu publikoetan nahitaezko ehuneko bat ipintzea.	BAI

### 4.1.3 Kudeaketa programa

#### 4.1.3.1 Gaikako bilketarako programa

Taula honetan jaso dira Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Plan Orokorraren indarraldian programa hau betetzeko aurreikusitako ekintzak, eta, zehazki, 2024rako aurreikusitakoak.

4. taula. Gaikako bilketa programan aurreikusitako jarduerak, 2024. urtea

Erreferentzia	Ekintza	2024rako aurreikusia
GAIKAKO BILKETA-1	Mankomunitateei laguntzea hondakin gaikako bilketarako eredu eta sistema oso eraginkorrak eta jasagarriak bultzatzen eta etengabe hobetzen, eta, horretarako, neurri hauek sustatzea: eredu eta sistemen azterketa bateratua, lurralde mailako irizpideen koordinazioa, erabiltzaileen ikuspegiaren azterketa eta integrazioa (genero irizpideak barne), sistema adimendunak txertatzea eta emaitzen ebaluazioa.	BAI
GAIKAKO BILKETA-2	Mankomunitateekin batera, garbiguneen egokitzapena eta hondakin korrante guztietarako administrazio irizpideen homogeneizazioa sustatzea eta haien erabilera bultzatzea –barnean harturik fibrozementu estrukturala, obra txikietako hondakinak eta gainerako etxeko hondakin arriskutsuak–, baita kopuru jakin batzuetatik aurrera kobratzeko aukera aurreikustea ere.	BAI
GAIKAKO BILKETA-3	Transferentzia instalazioekin lotutako beharren analisia egitea.	BAI

Erreferentzia	Ekintza	2024rako aurreikusia
GAIKAKO BILKETA-4	Informazio eta sentsibilizazio kanpainak egitea.	BAI

#### 4.1.3.2 Berrerabiltzeko prestatzeko programa

Taula honetan jaso dira Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Plan Orokorraren indarraldian programa hau betetzeko aurreikusitako ekintzak, eta, zehazki, 2024rako aurreikusitakoak.

5. taula. Berrerabiltzeko prestatzeko programan aurreikusitako jarduerak, 2024. urtea

Erreferentzia	Ekintza	2024rako aurreikusia
BERRERABILTZEKO PRESTATZEA-1	Tresna elektriko eta elektronikoek hondakinak, tamaina handikoak, ehunak eta beste tresna batzuk saldu, trukatu, konpondu eta birmanufakturatzeke sareak eta zerbitzuak babestea eta sustatzea.	BAI
BERRERABILTZEKO PRESTATZEA-2	Garbiguneak tresna elektriko eta elektronikoek hondakinei buruzko 110/2015 Errege Dekretura egokitzeko sustapena, mankomunitateekin batera.	EZ
BERRERABILTZEKO PRESTATZEA-3	Garbiguneen eta minigarbiguneen sarea etengabe hobetzen laguntzea, berrerabiltzeko prestatzeko.	BAI
BERRERABILTZEKO PRESTATZEA-4	Berrerabilerarako Prestakuntza Zentro (BPZ) baten beharrak aztertzea.	EZ (amaitua)
BERRERABILTZEKO PRESTATZEA-5	Kontsumitzaileentzako informazioa hobetzea eta produktu berrerabilgarriak merkaturatzea sustatzea (zuzenean edo berrerabiltzeko prestatu ondoren).	BAI

#### 4.1.3.3 Birziklatzeko programa, konpostajea/biometanizazioa barne

Programa honen garrantzia eta haren inguruko ekintzen garapena, azken urteetan. Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Plan Orokorraren indarraldian programa hau betetzeko aurreikusitako ekintzak, eta, zehazki, 2024rako planifikatutakoak.

6. taula. Birziklatze programan aurreikusitako jarduerak, 2024. urtea

Erreferentzia	Ekintza	2024rako aurreikusia
BIRZIKLATZEA-1	Biometanizazio/konpostajeko planten ustiapena sustatzea, kalitatea bermatzeko eta merkatura bideratutako produktu bat sortzera eta konpost eta digestatuaren merkaturatzea hobetzera bideratutako sistemen pean.	BAI
BIRZIKLATZEA-2	Konpostaje eta/edo biometanizazio instalazioen beharrak aztertzea.	BAI
BIRZIKLATZEA-3	Ontziak bereizteko Legazpiko eta Urrietako egungo plantek dituzten beharrak aztertzea. Zerbitzua zabaltzea, kasuak hala eskatzen badu, eta hondakinak kudeaketan hurbiltasun printzipioa indartzea.	BAI
BIRZIKLATZEA-4	Obra publikoan birziklatutako agregakinen erabilera sustatzea.	BAI
BIRZIKLATZEA-5	Gipuzkoako birziklapenaren klusterra (GK Recycling) bultzatzea ekonomia zirkularra sustatzeko: klusterra zabaltzea Gipuzkoako zentro teknologiko, unibertsitate, fundazio eta enpresa gehiago sar dadin; plan estrategikoa garatzea;	BAI

Erreferentzia	Ekintza	2024rako aurreikusia
	I+G+Baren arloko ekintza pilotuak bultzatzea, irizpideak eta tresnak sustatu eta ikusarazteko; nazioartekotzeko eta hedatzeko ekintzak antolatzea Gipuzkoako Klima Aldaketaren Fundazioarekin eta beste kluster eta eragile batzuekin lankidetzan.	
BIRZIKLATZEA-6	Esperientzia arrakastatsuak trukatzeta, identifikatzea eta zabaltzea, Gipuzkoako GK Recycling birziklatze klusterraren bidez. Bilketako jardunbide onenak zabaltzea.	BAI

#### 4.1.3.4 Balorizazio programa: materiala eta energia

Taula honetan jaso dira Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Plan Orokorraren indarraldian programa hau betetzeko aurreikusitako ekintzak, eta, zehazki, 2024rako aurreikusitakoak.

7. taula. Balorizazio material eta energetikoaren programan aurreikusitako jarduerak, 2024. urtea

Erreferentzia	Ekintza	2024rako aurreikusia
BALORIZAZIOA-1	I+G+Baren arloko laguntza, ekonomia zirkularreko eta bioekonomiako produktu berriei aplikatzeko.	BAI
BALORIZAZIOA-2	Gipuzkoako Ingurumen Gunearen azterketa eta jarraipen azterlanak.	BAI

#### 4.1.4 Deuseztatzea optimizatzeari buruzko programa

Erantsitako taulan jasotzen dira programa honetan jasotakoa betetzen jarraitzeko 2024an aurreikusitako ekintzak.

8. taula. Deuseztatzea optimizatzeako programan aurreikusitako jarduerak, 2024. urtea

Erreferentzia	Ekintza	2024rako aurreikusia
DEUSESTATZEA-1	Bigarren mailako hiri hondakinen isurketa minimizatzea eta optimizatzea.	BAI
DEUSESTATZEA-2	Zabortegean utzitako bigarren mailako hiri hondakinen kalitatea eta trazabilitatea kontrolatzeko sistema eraginkor bat ezartzea, 2018/850 Zuzentaraua betetzen dela bermatzeko.	EZ (amaitua)

## 4.2 Programaren arabeko kostuak

2022an egindako 2019-2022 aldiko ebaluazio txostenaren 37. taulan daude jasota Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko 2030eko Plan Orokorrean zehazten diren helburuak betetzeko abian jarri beharreko jardueren lotutako kostuak, programen arabera banakatuta eta urtez urte.

Taula honetan, berriz, laburbildurik jasotzen dira 2024. urtean gauzatzea aurreikusten zen ekintzen jarduera kopurua eta haien kostuak<sup>13</sup>.

<sup>13</sup> Dokumentu honetan jasotako balio ekonomikoek barnean hartzen dute BEZa.

9. taula. Urteko kostuak guztira, Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Plan Orokorren aurreikusitako programen arabera, 2024. urtea (euroak, 2018)

Jarduera	Euroak	Jarduera kop.
Behatoki programa	213.000	9
Prebentzio programa	1.963.000	20
Gaikako bilketarako programa	50.000	4
Berrerabiltzeko prestatzeko programa	110.000	2
Birziklatzeko programa	215.000	6
Balorizazio programa: materiala eta energia	491.000	2
Deuseztatzea optimizatzeari buruzko programa	0	1
Guztira	<b>3.042.000</b>	<b>44</b>

# B ZATIA: GIPUZKOAKO HIRI HONDAKINAK KUDEATZEKO PLAN OROKORRAREN BETETZE MAILA EBALUATZEA

5. Aurreikusitako jardueren betetze maila
6. Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Plan Orokorreko helburuen betetze maila, 2024
7. Genero inpaktuaren ebaluazioa

## 5 AURREIKUSITAKO JARDUEREN BETETZE MAILA

### 5.1 Praktiken eta ekintzen arabera betetze mailaren azterketa, 2024. urtea

#### 5.1.1 Jarraipen orokorra

Planaren 2024ko aurrerapen eta gauzatze maila ebaluatzeko, urte horretan bertan garatutako jardueren azterketa egin da.

Horretarako, aurreikusitako ekintza bakoitza baloratuko da, eta kategoria bat emango zaie: hasi gabea, hasia, abian, aurreratua edo amaitua, eta puntuazio bat, helburu bakoitzaren aurrerapen maila definituko duena.

10. taula. Jardueren puntuazioak aurrerapen mailaren arabera

Ekintza	Aurrerapen maila	Lortu beharreko gehieneko puntuak
Hasi gabea	Hasi gabea	0 puntu
Hasita	% 1 eta % 25 artean gauzatua	puntu 1
Abian	% 26 eta % 75 artean gauzatua	2 puntu
Aurreratua	% 76 eta % 99 artean gauzatua	3 puntu
Amaituta	% 100ean gauzatua	4 puntu

Iturria: geuk egina.

Ekintza bakoitzaren kategorizazioa Gipuzkoako Foru Aldundiaren taldearekin egindako kontraste prozesuaren bidez egin da.

Programa bakoitzaren aurrerapen maila zehazteko, kontuan hartuko da zenbat puntu lortu dituzten programaren ekintzek eta zenbat puntu lortu ahal ditzaketen gehienez. Hona hemen adibide teoriko bat.

Ekintzak:

1. ekintza, % 1 eta % 25 artean gauzatua = puntu 1
2. ekintza, % 100ean gauzatua = 4 puntu
3. ekintza, % 76 eta % 99 artean gauzatua = 3 puntu
4. ekintza, % 1 eta % 25 artean gauzatua = puntu 1
5. ekintza, hasi gabea = 0 puntu

Lortu beharreko gehieneko puntuazioa: 4 puntu x 5 ekintza = 20 puntu

Lortutako puntuazioa: 9 puntu (1+4+3+1)

Aurreratze maila:  $9/20 = \% 45$

Atxikitako taula honetan ageri da programa bakoitzaren barruan garatutako jarduerak bakoitzaren aurrerapen mailaren banakapena.

11. taula. 2024an Behatoki programaren barruan egindako jardueren aurrerapen maila

Jarduera	Aurrerapen mailaren arabera lortutako puntuak
BEHATOKIA-1	4
BEHATOKIA-2	4
BEHATOKIA-3	4
BEHATOKIA-4	4
BEHATOKIA-5	4
BEHATOKIA-6	0
BEHATOKIA-7	4
BEHATOKIA-8	4
BEHATOKIA-10	4

Iturria: Guk geuk egina

12. taula. Prebentzio programan 2024an egindako jardueren aurrerapen maila

Jarduera	Aurrerapen mailaren arabera lortutako puntuak
PREBENTZIOA-1	4
PREBENTZIOA-2	4
PREBENTZIOA-3	4
PREBENTZIOA-4	1
PREBENTZIOA-5	4
PREBENTZIOA-6	4
PREBENTZIOA-7	4
PREBENTZIOA-8	4
PREBENTZIOA-9	4
PREBENTZIOA-10	4
PREBENTZIOA-11	4

Jarduera	Aurrerapen mailaren arabera lortutako puntuak
PREBENTZIOA-12	4
PREBENTZIOA-13	4
PREBENTZIOA-14	4
PREBENTZIOA-16	4
PREBENTZIOA-17	4
PREBENTZIOA-18	4
PREBENTZIOA-20	4
PREBENTZIOA-21	4
PREBENTZIOA-22	4

Iturria: Guk geuk egina

13. taula. Gaikako bilketarako programan 2024an egindako jardueren aurrerapen maila

Jarduera	Aurrerapen mailaren arabera lortutako puntuak
GAIKAKO BILKETA-1	4
GAIKAKO BILKETA-2	4
GAIKAKO BILKETA-3	4
GAIKAKO BILKETA-4	4

Iturria: Guk geuk egina

14. taula. Berrerabiltzeko prestatzeko programan 2024an egindako jardueren aurrerapen maila

Jarduera	Aurrerapen mailaren arabera lortutako puntuak
BERRERABILTZEKO PRESTATZEA-1	4
BERRERABILTZEKO PRESTATZEA-3	4
BERRERABILTZEKO PRESTATZEA-5	4

Iturria: Guk geuk egina

15. taula. Birziklatzeko programan 2024an egindako jardueren aurrerapen maila

Jarduera	Aurrerapen mailaren arabera lortutako puntuak
BIRZIKLATZEA-1	4
BIRZIKLATZEA-2	4
BIRZIKLATZEA-3	4
BIRZIKLATZEA-4	4
BIRZIKLATZEA-5	4
BIRZIKLATZEA-6	4

Iturria: Guk geuk egina

16. taula. Balorizazio programaren barruan 2024an egindako jardueren aurrerapen maila: materialak eta energia

Jarduera	Aurrerapen mailaren arabera lortutako puntuak
BALORIZAZIOA-1	4
BALORIZAZIOA-2	4

Iturria: Guk geuk egina


17. taula. Deusestatzea optimizatzekeo programan 2024an egindako jardueren aurrerapen maila

Jarduera	Aurrerapen mailaren arabera lortutako puntuak
DEUSESTATZEA-1	4

Iturria: Guk geuk egina

Hurrengo irudian ikus daitekeenez, Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Plan Orokorrak 2024an izaniko inplementazio maila (aurretik zerrendatutako jarduketek zenbaterainoko aurrerapena izan duten kontuan hartuta) % 98ra iristen da, programaka banaturik.

1. irudia. Programen aurrerapen maila, 2024. urtea



Iturria: Guk geuk egina

2024an garatu beharreko jardueretarako aurreikusitako kostuak eta benetan gauzatutako partidak kontuan hartzen baditugu, ikusten da aurrekontuaren betetze maila % 95ekoa dela.

Hasierako aurrekontua programaren arabera zen, eta azkenean gauzatutakoa erantsitako taulan jaso da.

18. taula. Programetarako aurreikusitako guztizko kostuak eta kostu errealak, 2024. urtea (eurotan, 2018)

Jarduera	Aurreikusia	Errealak	Betetze maila
Behatoki programa	213.000	278.863	% 131
Prebentzio programa	1.963.000	1.737.983	% 89
Gaikako bilketarako programa	50.000	0	% 0
Berrerabiltzeko prestatzeko programa	110.000	100.000	% 91
Birziklatzeko programa	215.000	334.023	% 155
Balorizazio programa: materiala eta energia	491.000	441.883	% 90
Deuseztatzea optimizatzeari buruzko programa	0	0	
Jarduera guztien kostua	<b>3.042.000</b>	<b>2.892.752</b>	<b>% 95</b>

Esanguratsua da 2024an behatokiaren programetan eta birziklatzekoetan eginiko apustua, zeinek gainditu egiten baitute aurrekontuaren betetze mailaren % 100.




Prebentzio programak ekintzen garapenean % 95eko betetze maila duen arren, ez du eskatu zenbatetsitako aurrekontu zuzkidura. Gauza bera gertatzen da berrerabiltzeko prestatzeko eta balorizatzekeo programekin (materiala eta energetikoa), zenbatetsitako aurrekontua bertan behera geratu arren, ekintzen % 100era iritsi baitira.





### 5.1.2 Programen araberako jarraipena


Jarraian, 2024an garatutako ekintza bakoitzaren deskribapena jasotzen da.

#### 5.1.2.1 Behatoki programa

Programa horrek 10 jarduera biltzen ditu guztira, eta 2024an horietatik 9 gauzatzea zegoen aurreikusita. Programaren aurrerapen maila % 89koa da, jarduera kopuruaren eta gauzatze mailaren arabera.

 <p style="text-align: center;"><b>89%</b></p>		<h2>BEHATOKI PROGRAMA</h2>
<b>BEHATOKIA-1</b>	Interesgarriak izan daitezkeen eta areagotzen ari diren hondakinen karakterizazioak egitea eta toki erakundeek eta kudeatzaileek eginiko karakterizazioak biltzea.	<p>Aurrerapen maila</p>  <p><b>100%</b></p> <p>0 €</p>
<b>BEHATOKIA-1.1</b>	Karakterizazioak egitea eta horiek guztiak biltzea	<ul style="list-style-type: none"> <li>2024an, Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioak karakterizazio ugari egin ditu toki eskumeneko hondakinak Tratamendu Mekaniko Biologikoko Plantara (TMB) eramaten zituzten kamioien edukiei dagokienez.</li> </ul> <p><i>Aurreratze maila: % 100      Gauzatutako aurrekontua: 0 €</i></p>
<b>BEHATOKIA-2</b>	Gipuzkoako hondakinen sorkuntza eta gaikako bilketako datu basea kudeatzeko sistemen irizpideak bateratzea, sistema horiek hobetzea, mantentzea eta ustiatzea: SIGRU, web plataforma eta beste aplikazio batzuk.	<p>Aurrerapen maila</p>  <p><b>100%</b></p> <p>0 €</p>
<b>BEHATOKIA-2.1</b>	SIGRU tresna eguneratzea	<ul style="list-style-type: none"> <li>Gaur egun, SIGRU programaren bidez komunikatzen dira udaletako hondakinen datuak Gipuzkoako Foru Aldundiarekin, Jasangarritasun Departamentuko Trantsizio Ekologikoko Zuzendaritzaren, GHKren eta hondakinen mankomunitateen bitartez. Hala ere, zenbait kalkuluk —hala nola birziklatzeari edo konpostatzeari buruzkoek— bigarren mailako hondakinen norakoa jakin behar dute, eta informazio hori ez dago sisteman jasota. Garapen horrekin, hain justu, informazio hori sisteman sartzea lortzen da GHKren lankidetzarekin. Alderdi hori 2023an landu zen. 2024an, ildo bereko probekin jarraitu da.</li> </ul>

		<i>Aurreratze maila: % 100</i> <i>aurrekontua: 0 €</i>	<i>Gauzatutako</i>
<b>BEHATOKIA-3</b>	Web edukiak eguneratzea eta hondakinen sorkuntzari eta gaikako bilketari buruzko aldizkako txostenak argitaratzea. Alerta goiztiarreko txostenak egitea (2018/850 Zuzentaraua)		Aurrerapen maila  100% 0 €
<b>BEHATOKIA-3.1</b>	Hondakinen datuak argitaratzea	<ul style="list-style-type: none"> <li>2024an zehar, udal hondakinen sorrerarekin lotutako datuak bildu, aztertu eta argitaratu dira. Eta, zehazki, 2023. urteko inbentarioari dagozkion datuak eman dira argitara. Horiek hedatzeko bideak honako hauek izan dira, batez ere: Gipuzkoako Foru Aldundiaren webgunea, departamentuaren sare sozialak, prentsa oharrak argitaratzea eta Trantsizio Ekologikoko Departamentuko arduradunen agerraldiak.</li> </ul>	<i>Aurreratze maila: % 100</i> <i>Gauzatutako</i> <i>aurrekontua: 0 €</i>
<b>BEHATOKIA-4</b>	Behatokiaren Mahaia osorik garatzea organo tekniko eta aholku emaile gisa, eta gaikako lantaldeak sortzea eragile interesdunekin		Aurrerapen maila  100% 0 €
<b>BEHATOKIA-4.1</b>	Gipuzkoako Hiri Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Behatokiaren bilera	<ul style="list-style-type: none"> <li>2024an, bi aldiz elkartu zen Gipuzkoako Hiri Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Behatokia: apirilaren 25ean eta abenduaren 16an.</li> </ul>	<i>Aurreratze maila: % 0</i> <i>Gauzatutako</i> <i>aurrekontua: 0 €</i>
<b>BEHATOKIA-5</b>	Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko 2019-2030 aldirako Plan Orokorraren jarraipen txostenak idaztea		Aurrerapen maila  100% 18.029 €
<b>BEHATOKIA-5.1</b>	Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Plan Orokorraren 2024ko jarraipen txostena idaztea	<ul style="list-style-type: none"> <li>2025. urtean idatzitako txosten honetan jasotzen da Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Plan Orokorrean aurreikusitako ekintzetatik 2024. urtean egindakoen jarraipena. Jasotako zenbatekoa txosten honi dagokiona da, baina 2025ean kontabilizatu da.</li> </ul>	<i>Aurreratze maila: % 100</i> <i>Gauzatutako</i> <i>aurrekontua: 18.029 €</i>
<b>BEHATOKIA-6</b>	Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko 2019-2030 aldirako Plan Orokorraren informazio, jarraipen eta ebaluazio batzordea abian jartzea		Aurrerapen maila  0% 0 €

BEHATOKIA-6.1	Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko 2019-2030 aldirako Plan Orokorraren informazio, jarraipen eta ebaluazio batzordearen bilera.	<ul style="list-style-type: none"> <li>2024an, ez zuen egin bilerarik Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko 2019-2030 aldirako Plan Orokorraren informazio, jarraipen eta ebaluazio batzordeak.</li> </ul> <p><i>Aurreratze maila: % 0    Gauzatutako aurrekontua: 0 €</i></p>
<b>BEHATOKIA-7</b>	Hondakinen hierarkia betetzera bideratutako informazio, sentsibilizazio eta komunikazio plan bat egitea eta garatzea: Prebentzio Astea, informazio eta sentsibilizazio kanpaina orokorrak, programa bakoitzaren eta eragileen kanpaina espezifikoak koordinatzea, eta abar.	<p>Aurrerapen maila</p>  <p>100%</p> <p>110.868 €</p>
BEHATOKIA-7.1	Gipuzkoan etxeko olioaren birziklapena sustatzeko kanpaina	<ul style="list-style-type: none"> <li>Abenduaren 11n eta 23an, olioaren gaikako bilketa eta birziklapena sustatzeko kanpaina bati ekin zitzaion Gipuzkoako zenbait herritan. Kanpaina zabaltzeko, 5.000 triptiko inprimatu ziren tamaina irekian (628 x 210 mm) eta itxian (21 x 21 cm). Triptiko horiek 4+4 koloretan argitaratu ziren paper birziklatuan, eta berariaz errotulatu ziren kanpaina honetarako. Olioaren birziklatzea sustatzeko kanpaina horren esparruan, inbutuak ere bidali ziren lurraldeko zenbait puntu eta mankomunitatetara.</li> </ul> <p><i>Aurreratze maila: % 100    Gauzatutako aurrekontua: 9.928 €</i></p>
BEHATOKIA-7.2	Udako ikastaroak: Jasangarritasuna: lehiakortasun abantaila ETEarentzat	<ul style="list-style-type: none"> <li>Jardunaldia 2024ko uztailaren 11n egin zen; oro har enpresei zuzendua izan zen, eta, bereziki, Gipuzkoako Lurralde Historikoko ETEei, lurraldeko enpresa sarean jasangarritasun alternatibak zabaltzera bideraturik.</li> </ul> <p><i>Aurreratze maila: % 100    Gauzatutako aurrekontua: 3.000 €</i></p>
BEHATOKIA-7.3	Donostia Urban Fest – Klean! 02	<ul style="list-style-type: none"> <li>Gipuzkoako Foru Aldundiko Jasangarritasun Departamentuak, Donostiako Udalak, Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak eta Donostia-Gipuzkoa Basketek Donostia Urban Fest – Klean! jaialdia antolatu zuten. (02) Helburua izan zen hiri kirolarekin, hiri kulturarekin eta merkataritza jasangarriarekin lotutako balioak sustatzea herritarren artean. Jaialdian zehar (ekainaren 28tik 30era), kirol jarduerak egin ziren (3x3 saskibaloia), hiri artisten erakusketa bat izan zen Tabakalera (hori pinturak, grafitiak eta kustomizazioa) eta industria eta merkataritza jasangarriarekin lotutako jarduerak antolatu ziren (saskibaloiarekin, nutrizioarekin eta modarekin</li> </ul>

		<p>lotutako produktu jasagarrien erakusketa eta salmenta).</p> <p><i>Aurreratze maila: % 100      Gauzatutako aurrekontua: 18.150 €</i></p>
BEHATOKIA-7.4	<p>Ekonomia Zirkularraren VI. Nazioarteko Topaketa antolatzea eta egitea</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Ekonomia Zirkularraren Nazioarteko VI. Topaketa 2024ko urtarrilaren 31n eta otsailaren 1ean eta 2an egin zen. Bateria industria jasagarri bat lortzeko trantsizioaz gainera, jasagarritasunerako funtsezko gaiak ere jorratu zituzten topaketan. Horien artean, enpresa estrategian konpontzeko eskubidea integratzea, edo bioekonomia eta segurtasuna sustatzea lehengaiak hornitzeko garaian. Hala, ekitaldiak erronka eta aukera ugari izan zituen, etorkizun jasagarriago bat lortzera bideratuta.</li> <li>Karbono aztarna kalkulatzeko, txosten bat kontratatu zen. Haren emaitza gisa, Naturklimak CO<sub>2</sub>-a konpentsatzeko likidazioarekin erantzun zuen: 10,5 €/t (guztira 106,15 €-ko prezioa).</li> </ul> <p><i>Aurreratze maila: % 100      Gauzatutako aurrekontua: 76.160 €</i></p>
BEHATOKIA-7.5	<p>Arkitektura Graduko ikasle eta lizentziatu berrientzako jasagarritasun lehiaketa</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Azken urteotan, Euskal Herriko Unibertsitateko Arkitekturako Goi Eskola Teknikoak eta HABICek (Euskadiko eta Nafarroako Habitat, Egur, Bulego eta Contract Sektoreko Klusterra) Gipuzkoako Foru Aldundiarekin lankidetzan jardun dute berrikuntzarekin, prestakuntzarekin eta jakintza sortu eta eraldatzearekin lotutako zenbait jardueratan. Lurraldean arkitektura jasagarriaren eta produktu berritzaileen diseinua eta garapena sustatzera bideratuak izan dira horiek guztiak.</li> <li>Ekimen horien artean, 2024an jasagarritasunaren arloko sentsibilizazio ekintzekin jarraitu da Arkitektura Graduko ikasleen artean. Arkitektura Graduko ikasle eta lizentziatu berrientzako jasagarritasun lehiaketa antolatu da. Lehiaketa hori garatzeko, HABIC Klusterraren zerbitzuak erabili dira.</li> </ul> <p><i>Aurreratze maila: % 100      Gauzatutako aurrekontua: 3.630 €</i></p>
BEHATOKIA-7.6	<p>Eraikuntza jasagarriari eta zirkulartasunari buruzko jardunaldia</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Eraikuntzan material jasagarrien erabilera bultzatzera bideraturik, 2024an lan jardunaldi bat antolatu zen: saio haietan, eraikuntza jasagarriaren alorreko kasu garrantzitsuak eta arrakastatsuak aztertu zituzten.</li> </ul> <p><i>Aurreratze maila: % 100      Gauzatutako aurrekontua: 0 €</i></p>
BEHATOKIA-7.7	<p>Sentsibilizazio kanpaina Lehen eta Bigarren Hezkuntzan</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Hondakinen kudeaketa egokiari buruzko sentsibilizazio kanpaina Lehen eta Bigarren Hezkuntzan. Zenbait joko egin ziren Lehen Hezkuntzako ikasleekin, eta Bigarren Hezkuntzakoekin, berriz, kontsumo arduratsua,</li> </ul>

		<p>publizitatearen eragina eta beste zenbait alderdi landu ziren.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>Gipuzkoako Foru Aldundiko Trantsizio Ekologikoko Departamentuak urtero egiten duen dirulaguntza deialdiaren esparruan gauzatu da ekintza hori.</li> </ul> <p><i>Aurreeratze maila: % 100      Gauzatutako aurrekontua: 0 €<sup>14</sup></i></p>
BEHATOKIA-7.8	Mankomunitateko Lehen Hezkuntzako zentroetako karakterizazioak	<ul style="list-style-type: none"> <li>Debarareneko bigarren hezkuntzako ikastetxeetan informazio eta sentsibilizazio kanpaina egitea, hezkuntza komunitatea gaikako bilketaren eta birziklatzearen garrantziaz sentsibilizatzeko. Ekintza horretan, ikastetxe bakoitzeko patioan utzitako hondakinen ezaugarriak aztertu zituzten, gaikako bilketari buruzko informazio totemak ipini zituzten, eta konposta banatu zuten.</li> <li>Gipuzkoako Foru Aldundiko Trantsizio Ekologikoko Departamentuak urtero egiten duen dirulaguntza deialdiaren esparruan gauzatu da ekintza hori.</li> </ul> <p><i>Aurreeratze maila: % 100      Gauzatutako aurrekontua: 0 €<sup>15</sup></i></p>
BEHATOKIA-7.9	Etkez etxeko informazio kanpaina, Pasaiaiko birziklatze tasa areagotzeko	<ul style="list-style-type: none"> <li>Herritarrei informazioa emateko kanpaina, Pasaiaiko birziklatze tasa handitzearen garrantziari buruz.</li> <li>Gipuzkoako Foru Aldundiko Trantsizio Ekologikoko Departamentuak urtero egiten duen dirulaguntza deialdiaren esparruan gauzatu da ekintza hori.</li> </ul> <p><i>Aurreeratze maila: % 100      Gauzatutako aurrekontua: 0 €<sup>16</sup></i></p>
BEHATOKIA-7.10	Sentsibilizazio kanpaina, organikoaren bilketa sustatzeko eta errefusa murrizteko	<ul style="list-style-type: none"> <li>Herritarrak sentsibilizatzeko kanpaina, hondakin organikoaren bilketa sustatzeko eta gainerako frakzioena murrizteko.</li> <li>Gipuzkoako Foru Aldundiko Trantsizio Ekologikoko Departamentuak urtero egiten duen dirulaguntza deialdiaren esparruan gauzatu da ekintza hori.</li> </ul> <p><i>Aurreeratze maila: % 100      Gauzatutako aurrekontua: 0 €<sup>17</sup></i></p>
BEHATOKIA-7.11	Udal informazioa zabaltzeko informazio panel elektronikoak jartzea Ordizian	<ul style="list-style-type: none"> <li>Informazio panel elektronikoak jartzea, udal informazioa zabaltzera eta paper hondakinak sortzea prebenitzera bideraturik.</li> <li>Gipuzkoako Foru Aldundiko Trantsizio Ekologikoko Departamentuak urtero egiten duen dirulaguntza deialdiaren esparruan gauzatu da ekintza hori.</li> </ul> <p><i>Aurreeratze maila: % 100      Gauzatutako aurrekontua: 0 €<sup>18</sup></i></p>

<sup>14</sup> PREBENTZIOA-7.1 ekintzan jasotako aurrekontua

<sup>15</sup> PREBENTZIOA-7.1 ekintzan jasotako aurrekontua

<sup>16</sup> PREBENTZIOA-7.1 ekintzan jasotako aurrekontua

<sup>17</sup> PREBENTZIOA-7.1 ekintzan jasotako aurrekontua


<sup>18</sup> PREBENTZIOA-7.1 ekintzan jasotako aurrekontua

BEHATOKIA-7.12	Sentsibilizazio kanpaina, minigarbiguneak	<ul style="list-style-type: none"> <li>Sentsibilizazio kanpaina, Tolosaldeko Mankomunitateak landa inguruneko sei udalerritan jarritako minigarbiguneen erabilera sustatzeko.</li> <li>Gipuzkoako Foru Aldundiko Trantsizio Ekologikoko Departamentuak urtero egiten duen dirulaguntza deialdiaren esparruan gauzatu da ekintza hori.</li> </ul> <p><i>Aurreratze maila: % 100      Gauzatutako aurrekontua: 0 €<sup>19</sup></i></p>
BEHATOKIA-7.13	FarmerFish erronka ikasgeletan	<ul style="list-style-type: none"> <li>Gipuzkoako Foru Aldundiko Jasangarritasun Departamentuaren helburua da ingurumen hezkuntza sustatzea adin goiztiarretan. Horretarako, "Farmer Fish erronka" proiektua jarri zuen abian 2023an Gipuzkoako ikastetxeetan, ingurumenaren babesaz eta garapen jasangarriaz kontzientziatutako pertsonak prestatzea helburu harturik.</li> <li>Proiektu horretan, bioekonomia zirkularrari buruzko onlineko tailerrak eta ikastaroak egin ziren irakasleentzat. Era berean, FarmerFish kitak banatu ziren ikastetxeetara. Kit hori bioekonomia zirkularreko sistema didaktiko bat da, miniatura formatukoa, ikasgeletan FarmerFish erronka praktikoki garatzeko oinarri gisa baliatzeko.</li> <li>2024an, ekimen hori garatzen jarraitu zen, nahiz haren aurrekontuak 2025eko partida baliatu duen.</li> </ul> <p><i>Aurreratze maila: % 100      Gauzatutako aurrekontua: 0 €</i></p>
BEHATOKIA-8	Hondakinak Prebenitzeko Europako Astea egitea.	<p>Aurrerapen maila</p>  <p>100%</p> <p>149.966 €</p>
BEHATOKIA-8.1	Hondakinak Prebenitzeko Europako Astea egitea.	<ul style="list-style-type: none"> <li>Aurreko urteetan bezala, 2024an ere zenbait informazio, komunikazio eta sentsibilizazio ekintza egin ziren, azaroaren 16tik 22ra bitartean antolatutako Hondakinak Prebenitzeko Europako Astearen esparruan. Zehazki, jarduera hauek egin ziren (banaka deskribatuko ditugu jarraian): <ul style="list-style-type: none"> <li>Gipuzkoako Elikagaien Bankuaren aldeko afari jasangarri eta solidarioa</li> <li>Moda Jasangarriaren IX. Desfilea</li> <li>GK Recycling karpa</li> <li>Elikagaien Bankua aintzatesteko ekitaldia</li> <li>"Gastronomia jasangarrirantz: berrikuntza eta lankidetzaren ekinean" jardunaldia</li> <li>Ekonomia Zirkularra Moldatzen</li> <li>Ehunak berrerabiltzeko Errenteriako instalazioa bisitatzea</li> </ul> </li> </ul>

<sup>19</sup> PREBENTZIOA-7.1 ekintzan jasotako aurrekontua



		<ul style="list-style-type: none"> <li>· Tamaina handiko ontziak berrerabiltzeko Urnietako instalazioa bisitatzea</li> <li>· Emakumeak eta Jasangarritasuna Ekonomia Zirkularrean sariak</li> <li>· EWWR komunikabideetan eta sareetan zabaltzeko antolaketa eta kudeaketa orokorra</li> </ul> <p><i>Aurreratze maila: % 100      <b>Gauzatutako</b></i>  <i>aurrekontua: 149.966 €</i></p>
Gipuzkoako Elikagaien Bankuaren aldeko afari jasangarri eta solidarioa		<ul style="list-style-type: none"> <li>· Afari Jasangarri eta Solidarioaren IV. Edizioa Mahaia sukaldarien kolektiboarekin eta Basque Culinary Centerrekin (BCC) lankidetzan egin zen azaroaren 20an. Helburua izan zen elikagaien xahuketari buruzko kontzientziaioa areagotzea eta Gipuzkoako Elikagaien Bankuarentzat dirua biltzea. Ekitaldi honek lurraldeko sektore ekonomiko, instituzional eta sozialetako eragile adierazgarrienak bildu zituen.</li> </ul>
Moda Jasangarriaren IX. Desfilea		<ul style="list-style-type: none"> <li>· Azaroaren 23an, Moda Jasangarriaren IX. Desfilea egin zen. Emanaldi bakarrekoa izan zen, eta berrikuntza garrantzitsu bat izan zuen: Gipuzkoako saltoki txikien parte hartzea, bigarren eskuko moda proposamenak erakusteko eta jantziak berrerabiltzeko. Gainera, urtero bezala, ekitaldian izan ziren Gipuzkoako GK Green Fashion moda jasangarriko klusterreko diseinatzaileak ere, eta moda zirkularrarekiko eta jasangarritasunarekiko konpromisoa indartzen duten sorkuntza berritzaileak eskaini zituzten. Tokiko saltoki txikien eta diseinatzaile jasangarrien arteko lankidetzak horrek ekonomia zirkularraren alde eginiko bultzada azpimarratzen du, eta publikoari ezagutarazten zaio nola integratu daitekeen moda arduratsua eguneroko martxan. Naturkliman egin zen, eta parte hartu zuten diseinatzaileen artean ageri dira NAW, MOCLAN, MAIDER ALZAGA, GIOVANNA BITTANTE, KOTOI, AM BIKO ESTUDIO, EMAUS eta ELI-TWO.</li> </ul>
GK Recycling karpa		<ul style="list-style-type: none"> <li>· Karpa hartan, GK Recycling birziklapenaren klusterreko hamar enpresak egiten dituzten produktuak eta prozesuak erakutsi zituzten, barnean harturik haien garapenetan aplikatutako irizpide ekologikoak eta zirkularrak. Zehazki, enpresa hauek parte hartu zuten: Surfrider, Ekogras, Mater, Naturklima, Asmatu, UVESCO, Sutargi-Deko social, EMAUS, Ekotrade (Moyua) eta Asfaltia (Campezo Taldea). Karpa muntatzeko errotulu batzuk sortu behar izan zituzten, eta segurtasun pribatua kontratatu zen erakusketa egunetan karpa zaintzeko.</li> </ul>
Elikagaien Bankua aintzatesteko ekitaldia		<ul style="list-style-type: none"> <li>· 2009. urteaz geroztik, Gipuzkoako Foru Aldundia Gipuzkoako Elikagaien Bankuarekin lankidetzan ari da Azken Minutua programa garatzeko. Programa horren bidez, Gipuzkoako Elikagaien Bankuak merkataritza erakunde laguntzaileen soberakinak biltzen ditu: hain justu ere, dagoeneko merkaturatu ezin diren arren, kontsumitzeko egokiak direnak.</li> <li>· Egindako lana aintzatesteko, enpresa laguntzaileak aitortzeko ekitaldi bat egin zen 2024ko azaroaren 18an, Gipuzkoako Elikagaien Bankuak Azken Minutua programan egindako lanagatik.</li> </ul>


	<ul style="list-style-type: none"> <li>· Aintzatespen horretan, diplomak eta cateringa eman zituzten.</li> </ul>
<p>“Gastronomia zirkularra: elikadura iraunkorraren zikloa itxiz / Ekonomia zirkularraren erronkak eta aukerak gastronomian” Jardunaldia</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>· Azaroaren 20an gastronomia jasangarriari buruz eginiko jardunaldia, Basque Culinary Centerren lankidetzarekin egina. Helburua izan zen eragile guztien arteko lankidetzari erreparatzea, ekiten hasteko eta elikadura sistema jasangarriago eta erresilienteago batera igarotzeko. Askotariko alderdiak landu ziren, hala nola <i>huben</i> eta <i>living laben</i> balioa jasangarritasunaren arloko soluzio berritzaileak sortzeko eta transferitzeko.</li> </ul>
<p>Ekonomia Zirkularra Moldatzen</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>· Prestakuntza eta sentsibilizazio jarduera honetan, Gipuzkoako Lanbide Heziketako 9 ikastetxetako ikasleek eskulturak eta erakusketak egin zituzten, ekonomia zirkularra edo birziklapena ulertzeko modua islatzeko. Erakusketa horrekin batera, diplomak banatu zituzten. Ikastetxe hauek parte hartu zuten: <ul style="list-style-type: none"> <li>· Aretxabaleta Lanbide Eskola</li> <li>· Gizarte Berrikuntzako LHII</li> <li>· Izarraitz Lanbide Heziketa</li> <li>· Kardala LHII</li> <li>· CIFP MEKA LHII</li> <li>· Mendibil Prestakuntza Zentroa</li> <li>· Oñati BHI</li> <li>· BITORIANO GANDIAGA FUNDAZIOA</li> <li>· Peñasal kooperatiba elkarte (Peñasal Tolosa)</li> </ul> </li> </ul>
<p>Emakumeak eta Jasangarritasuna Ekonomia Zirkularrean sarien I. edizioa</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>· 2024ko azaroaren 22an egin banatu ziren lehen aldiz Emakumeak eta Jasangarritasuna Ekonomia Zirkularrean sariak. Aintzatespen horien helburua da emakumeek zuzendaritza postuetan ekonomia zirkularreko proiektu berritzaileak bultzatzen egindako lana aitortzea eta ikusaraztea, eta bereziki nabarmentzen dute emakumeon eginkizun erabakigarria, ekoizpen eta kontsumo eredu jasangarriagoak bultzatzeko egiten duten lanagatik. Ekimenak indartu egiten du genero berdintasunarekiko eta emakumeen ahalduzkoarekiko konpromisoa, eta bereziki azpimarratzen da emakumeon lidergoa tradizionaliki gizonak nagusi izan diren sektoreetan, bai eta planetaren etorkizunari egiten dion ekarpena ere.</li> </ul>
<p>Ehunak berrerabiltzeko instalazioa eta bolumen handiko objektuen instalazioa bisitatzea (Erreterian eta Urnietan, hurrenez hurren)</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>· Hondakinak Prebenitzeko Europako Astean, Emaus Gizarte Fundazioak eta Koopera Ingurumen Zerbitzuek ateak zabaltzeko jardunaldiak antolatu zituzten hilaren 18an eta 19an, ehun hondakinak, bolumen handiko hondakinak eta tresna elektriko-elektronikoak tratatzeko Erreterian eta Urnietako instalazioetan. Bisita gidatu horien helburua izan zen herritarrak eta eragile komunitarioak sentsibilizatzea ekonomia zirkularraren garrantziaz eta hondakinen kudeaketa egokiaz. Inguratu zirenek bertatik bertara ezagutu zuten berrerabiltzeko, konpontzeko eta birziklatzeko jarduerak gizartean eta ingurumenean duten</li> </ul>


	inpaktua: jasangarritasuna sustatzeaz gainera, enplegu inklusiboa ere sortzen baitute gizartetik baztertzeko arriskuan dauden pertsonentzat.	
<b>BEHATOKIA-10</b>	Hiri Hondakinak Koordinatzeko Organoarekin koordinatzea	Aurrerapen maila  100% 0 €
BEHATOKIA-10.1	Hondakinak Koordinatzeko Organoarekin koordinatzea	· Hondakinak Koordinatzeko Organoak deitutako jarraipen bilera hauek joatea: 2024ko otsailaren 9an, ekainaren 28an eta urriaren 22an. <i>Aurreratze maila: % 100      Gauzatutako aurrekontua: 0 €</i>

### 5.1.2.2 Prebentzio programa



Programa horrek 22 jarduera biltzen ditu guztira, eta 2024an horietatik 20 gauzatzea zegoen aurreikusita. Programaren aurrerapen-maila, 2024an gauzatu beharreko jarduketan kopuruari eta gauzatze mailari erreparatuta, % 95ekoa da.

 95%		<b>PREBENTZIO PROGRAMA</b>
<b>PREBENTZIOA-1</b>	Hondakinen sorkuntzagatik ordainketa politikak bultzatzea, herritarrei eta merkataritza eta industria sektoreei zuzenduta.	Aurrerapen maila  100% 0 €
PREBENTZIOA-1.1	Hondakinak sortzeagatik ordainketa politikak bultzatzea, herritarrei eta merkataritza eta industria sektoreei zuzenduta.	· Gipuzkoako Foru Aldundiak badu dirulaguntza lerro bat, udalei eta mankomunitateei zuzendua, eta, laguntza horiek baliatuz, sortutakoaren arabera ordainarazteko proiektuei ekin dakieke. 2024an gai horrekin lotutako bi proiektu izan ziren. <i>Aurreratze maila: % 100      Gauzatutako aurrekontua: 0 €</i>

<p><b>PREBENTZIOA-2</b></p>	<p>Gipuzkoako moda jasangarriko klusterra sustatzea (GK Green Fashion): jasangarritasun irizpideetan sakontzea, katalogoa zabaltzea diseinatzaile eta enpresa gipuzkoar gehiagorekin; I+G+Bko ekintza pilotuak bultzatzea, sustatzeko eta ikusarazteko ekintzak (Moda Jasangarriaren Desfilea, tokiko marka berriak garatzeko espazioak, etab.); kontsumo arduratsuko tresnak eta abar nazioartekotzea eta zabaltzea, beste kluster eta eragile batzuekin lankidetzan (Gipuzkoa de Moda, Slow Fashion Next...).</p>	<p>Aurrerapen maila</p>  <p>71.661 €</p>
<p>PREBENTZIOA-2.1</p>	<p>GK Green Fashion Moda Jasangarriaren Klusterraren jardunaldia: Etorkizuna konpromisoarekin</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>GK Green Fashion Moda Jasangarriaren Klusterrak jardunaldi bat egin zuen, modaren munduak (ehungintzak eta osagarriek) ingurumenean duen inpaktuari buruz herritarrak sentsibilizatzeko eta hezteko: Maiatzaren 2an, GK Green Fashion Klusterrak antolatuta, moda jasangarriko jardunaldi bat egin zen DV Gunean, gai hauek ardatz hartuta: “Etorkizuna konpromisoarekin”. Jardunaldi hori maiatzaren 2an egin zen DV Gunean.</li> </ul> <p><i>Aurreratze maila: % 100      Gauzatutako aurrekontua: 8.636 €</i></p>
<p>PREBENTZIOA-2.2</p>	<p>“Publikoak sentsibilizatzea: iraunkortasuna modaren sektorean” hezkuntza programa</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Ehungintzako hondakinen sorrera murriztea da Trantsizio Ekologikoko Zuzendaritza Nagusiaren erronka nagusietako bat, etxeko hondakinen kudeaketari dagokionez. Ildo horretan, besteak beste, prebentzio kanpaina bat garatu zuten, ikasleen artean moda kultura eta kontsumo arduratsua eragiteko eta auzi horren gaineko sentsibilizazio eta heziketa lana egiteko. Ekintza horretarako, “Publikoak sentsibilizatzea: iraunkortasuna modaren sektorean” hezkuntza programa zabaldu zen Gipuzkoako ikastetxeetan. Ingurumen Zuzendaritza Nagusiak Cristóbal Balenciaga Fundazioaren laguntza izan zuen hezkuntza programa hori gauzatzeko.</li> </ul> <p><i>Aurreratze maila: % 100      Gauzatutako aurrekontua: 15.503 €</i></p>
<p>PREBENTZIOA-2.3</p>	<p>GK Green Fashion klusterrak Be Veggie! azokan parte hartu zuen</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Modaren munduak (ehungintza eta osagarriak) ingurumenean duen inpaktuari buruz herritarrak sentsibilizatzeko eta hezteko, egokitzen jo da GK Green Fashion Moda Jasangarriaren klusterra babesten jarraitzea, Ficoba Fundazioak 2024ko abenduaren 6an, 7an eta 8an antolatu zuen BeVeggie! azokan. Babesletza proposamenak 48 m<sup>2</sup>-ko salmenta stand bat, komunikazio bisualeko euskarriak eta produktu erakusketa bat biltzen ditu, Fast Fashion edo moda azkarraren kontsumoaren arazoaz kontzientziatzeko eta</li> </ul>

		<p>Modaren Klusterreko diseinatzaile gipuzkoarren proposamenak bistaratzeko. Era berean, gonbidapenak eman dira eta komunikazio eta hedapen ekintza batzuk antolatu dira Aldundiko Jasangarritasun Departamenturako eta GK Green Fashionerako.</p> <p><i>Aurreratze maila: % 100      Gauzatutako aurrekontua: 21.687 €</i></p>
PREBENTZIOA-2.4	Moda Jasangarriaren IX. Jardunaldia	<ul style="list-style-type: none"> <li>· Urriaren 24an moda jasangarriko beste jardunaldi bat egin zen DV Gunean. Moda Jasangarriari buruzko Jardunaldiaren bederatzigarren edizio horretan, araudiarekin, zirkulartasunarekin eta material berriekin lotutako gaiak izan zituzten hizpide.</li> </ul> <p><i>Aurreratze maila: % 100      Gauzatutako aurrekontua: 24.190 €</i></p>
PREBENTZIOA-2.5	Pasaporte Digitalari buruzko prestakuntza jardunaldia	<ul style="list-style-type: none"> <li>· 2024an, Pasaporte Digitalari eta moda jasangarriaren industrian duen inpaktuari buruzko prestakuntza jardunaldi bat egin zen. Prestakuntza ekintza hori GK Green Fashion klusterra osatzen duten enpresetako profesionali zuzendua izan zen bereziki.</li> </ul> <p><i>Aurreratze maila: % 100      Gauzatutako aurrekontua: 1.646 €</i></p>
<b>PREBENTZIOA-3</b>	Etxeetan eta merkataritzan kontsumo arduratsua sustatzea, tokiko produktua, konponketa, trukea eta bigarren eskuko produktuak sustatuz.	<p style="text-align: right;"><b>Aurrerapen maila</b></p> <div style="text-align: center;">  <p>100%</p> <p>0 €</p> </div>
PREBENTZIOA-3.1	Merka2dasoa 2024	<ul style="list-style-type: none"> <li>· MERKA2DASOA azoka solidarioaren beste deialdi bat egin da 2024an. Txingudiko Zerbitzuak 2008az geroztik ari da azoka hau egiten, eta egoera onean dauden bigarren eskuko objektuak salerosteko gune bat gaitzen du.</li> <li>· Gipuzkoako Foru Aldundiko Trantsizio Ekologikoko Departamentuak urtero egiten duen dirulaguntza deialdiaren esparruan gauzatu da ekintza hori.</li> </ul> <p><i>Aurreratze maila: % 100      Gauzatutako aurrekontua: 0 €<sup>20</sup></i></p>
PREBENTZIOA-3.2	Bigarren eskuko merkatuak Eibarren, erabilitako objektuen berrerabilera sustatzeko.	<ul style="list-style-type: none"> <li>· Bigarren eskuko merkatu bat egiteko prozesuarekin jarraitu zen Eibarren, erabilitako objektuak berrerabilteza sustatzeko.</li> <li>· Gipuzkoako Foru Aldundiko Trantsizio Ekologikoko Departamentuak urtero egiten duen dirulaguntza deialdiaren esparruan gauzatu da ekintza hori.</li> </ul>

<sup>20</sup> PREBENTZIOA-7.1 ekintzan jasotako aurrekontua

		<i>Aurreratze maila: % 100      Gauzatutako aurrekontua: 0 €<sup>21</sup></i>
PREBENTZIOA-3.3	Bigarren eskuko bizikleten eta mugikortasun jasangarriaren azoka	<ul style="list-style-type: none"> <li>· Bigarren eskuko bizikleten eta mugikortasun jasangarriaren azokaren beste deialdi bat.</li> <li>· Gipuzkoako Foru Aldundiko Trantsizio Ekologikoko Departamentuak urtero egiten duen dirulaguntza deialdiaren esparruan gauzatu da ekintza hori.</li> </ul> <i>Aurreratze maila: % 100      Gauzatutako aurrekontua: 0 €<sup>22</sup></i>
PREBENTZIOA-3.4	Bigarren eskuko bizikleten azoka	<ul style="list-style-type: none"> <li>· Bigarren eskuko bizikleten azoka.</li> <li>· Gipuzkoako Foru Aldundiko Trantsizio Ekologikoko Departamentuak urtero egiten duen dirulaguntza deialdiaren esparruan gauzatu da ekintza hori.</li> </ul> <i>Aurreratze maila: % 100      Gauzatutako aurrekontua: 0 €<sup>23</sup></i>
PREBENTZIOA-3.5	Zero Market hiri azoka	<ul style="list-style-type: none"> <li>· Azoka horren bidez, aukera eman zen bigarren eskuko arropa, tokiko artisautza, berrerabilitako edo birziklatutako materialekin egindako produktuak eta stockak erosteko.</li> <li>· Gipuzkoako Foru Aldundiko Trantsizio Ekologikoko Departamentuak urtero egiten duen dirulaguntza deialdiaren esparruan gauzatu da ekintza hori.</li> </ul> <i>Aurreratze maila: % 100      Gauzatutako aurrekontua: 0 €<sup>24</sup></i>
<b>PREBENTZIOA-4</b>	Gipuzkoako Foru Aldundian erosketari berde eta zirkularraren programa bultzatzea, berrerabilitako eta birziklatutako produktuak eta materialak sar daitezkeen: produktuak, zerbitzuak, obrak eta instalazioak.	<b>Aurrerapen maila</b>  <b>0%</b> <b>0 €</b>
PREBENTZIOA-4.1	Gipuzkoako Foru Aldundian erosketari berde eta zirkularraren programa bultzatzea, berrerabilitako eta birziklatutako produktuak eta materialak sar daitezkeen.	<ul style="list-style-type: none"> <li>· 2024an ez da egin jarduerari horri buruzko lan espezifikorik.</li> </ul> <i>Aurreratze maila: % 0      Gauzatutako aurrekontua: 0 €</i>
<b>PREBENTZIOA-5</b>	Ekodiseinua bultzatzea	<b>Aurrerapen maila</b>  <b>100%</b> <b>0 €</b>



<sup>21</sup> PREBENTZIOA-7.1 ekintzan jasotako aurrekontua

<sup>22</sup> PREBENTZIOA-7.1 ekintzan jasotako aurrekontua


<sup>23</sup> PREBENTZIOA-7.1 ekintzan jasotako aurrekontua


<sup>24</sup> PREBENTZIOA-7.1 ekintzan jasotako aurrekontua

PREBENTZIOA-5.1	Ekodiseinua bultzatzea	<ul style="list-style-type: none"> <li>2024an ez da gauzatu ekintza espezifikorik prebentzio programaren barneko PREBENTZIOA-5 ekintza honetan, egokitzen jo baita ekintza horiek ekonomia zirkularreko dirulaguntza lerroaren bidez birbideratzea toki erakundeei eta mankomunitateei, baita Ekonomia Zirkularren Nazioarteko Topaketa eginda ere.</li> </ul> <p><i>Aurreratze maila: % 100      Gauzatutako aurrekontua: 0 €</i></p>
<b>PREBENTZIOA-6</b>	Gipuzkoako Foru Aldundiaren eraikin publikoetan ingurumena kudeatzeko sistemak bultzatzea: sortutako hondakinak minimizatzea eta kudeatzea	<p style="text-align: right;"><b>Aurrerapen maila</b></p> <div style="text-align: center;">  <p>100%</p> <p>0 €</p> </div>
PREBENTZIOA-6.1	Gipuzkoako Foru Aldundiaren eraikinetako hondakin kudeaketari (banaketari) eta sistemei buruzko azterlana.	<ul style="list-style-type: none"> <li>Azken urteotan Gipuzkoako Foru Aldundiaren eraikinetako hondakin kudeaketa (bereizketa) eta sistemen inguruan egindako lanen ondoren, 2024an egindako azterlanetan identifikatutako neurri batzuk gauzatu ziren, bereziki bereizketarekin loturik.</li> </ul> <p><i>Aurreratze maila: % 100      Gauzatutako aurrekontua: 0 €</i></p>
<b>PREBENTZIOA-7</b>	Mankomunitate, udal, enpresa eta irabazi asmorik gabeko elkarrekin prebentzio, gaikako bilketa, berrerabiltzeko prestakuntza eta birziklapenaren arloetako laguntzen foru programari eustea (elkarrekin norgehiagokako dirulaguntzak eta lankidetzak hitzarmen izendunak).	<p style="text-align: right;"><b>Aurrerapen maila</b></p> <div style="text-align: center;">  <p>100%</p> <p>1.005.000 €</p> </div>
PREBENTZIOA-7.1	Dirulaguntzen deialdia (laguntzen foru programa).	<ul style="list-style-type: none"> <li>Departamentuak urtero ematen dituen dirulaguntzen deialdia. Lerro horietako bat ekonomia zirkularrekoa da.</li> <li>Trantsizio Ekologikoko Departamentuak arlo horretan duen dirulaguntza lerro bakarra da, eta udalei, mankomunitateei, enpresei eta irabazi asmorik gabeko elkarrekin zuzendua da.</li> </ul> <p><i>Aurreratze maila: % 100      Gauzatutako aurrekontua: 1.005.000 €</i></p>
<b>PREBENTZIOA-8</b>	Gazteentzako I+G+Bko beken foru programari eustea: prebentzioa, produktu eta zerbitzuen ekodiseinua, berrerabiltzeko prestatzea, gaikako bilketa, birziklatzea eta balorizazioa.	<p style="text-align: right;"><b>Aurrerapen maila</b></p> <div style="text-align: center;">  <p>100%</p> <p>36.000 €</p> </div>
PREBENTZIOA-8.1	Ekonomia zirkularreko beka	<ul style="list-style-type: none"> <li>2024an 3 beka eman ziren. Beka horiek gai hauei buruzkoak izan ziren: <ul style="list-style-type: none"> <li>Gipuzkoako itsas hondoetako hondakin murriztea, eta, horretarako, kopolimeroak dituzten hondakin plastikoak bildu eta balorizatzea eta prozesuen ingurumen inpaktuak zehaztea.</li> </ul> </li> </ul>

		<ul style="list-style-type: none"> <li>· Kontsumitu ondoko polipropileno postindustriala, Gipuzkoan ekonomia zirkularra sustatzeko konpositeen matrize polimeriko gisa.</li> <li>· Poliamida hondakinak sortzea eta birziklatzea.</li> </ul> <p><i>Aurreratze maila: % 100      Gauzatutako aurrekontua: 36.000 €</i></p>
<b>PREBENTZIOA-9</b>	Azken Minutua programa indartzea Gipuzkoako Elikagai Bankuaren (GEB) bidez: emaileen kopurua handitzea eta aprobetxatzeko formula berriak.	<p>Aurrerapen maila</p>  <p>256.687 €</p>
PREBENTZIOA-9.1	Hitzarmena Gipuzkoako Elikagaien Bankuarekin	<ul style="list-style-type: none"> <li>· Gipuzkoako Foru Aldundiaren Trantsizio Ekologikoko Departamentua 2007an hasi zen Gipuzkoako Elikagaien Bankuarekin lanean merkaturatu ezin diren elikagaiak biltzeko. Era berean, elikagaiak dohaintzan ematearen alde lan egiten duten erakundeen taldean sartzen joan dira elikaduraren sektoreko enpresak. Hala, lankidetzaren emankor horri, partikularrengandik zuzenean bildutako diru biltetei eta Europako Laguntza Funtzaren ekarpenei esker, 2.500.000 kilogramo elikagai baino gehiago biltzen dira urtero batez beste programa horien barruan. Ildo horretan, 2.783.000 kilogramo banatu ziren 2021ean, 2.509.576 kg kilogramo 2022an eta 2.801.000 kg kilogramo 2023an.</li> <li>· 2024ko lankidetzaren hitzarmenaren bidez, Gipuzkoako Lurralde Historiko osoan elikagaiak biltzeko, biltegitratzeko, banatzeko eta egungo sarea mantentzeko beharrezko gastuak finantzatzea lortu da.</li> </ul> <p><i>Aurreratze maila: % 100      Gauzatutako aurrekontua: 250.000 €</i></p>
PREBENTZIOA-9.2	Patatak ematea Gipuzkoako Elikagaien Bankuari	<ul style="list-style-type: none"> <li>· 38.670 kg patata erosi zaizkio Patateros Solidarios taldeari, Gipuzkoako Elikagaien Bankurako. 2024ko udaberriko dohaintza kanpaina 15 kg-ko 243 zaku erosi ziren, eta udazkenekoan, berriz, 15 kg-ko 235 zaku.</li> </ul> <p><i>Aurreratze maila: % 100      Gauzatutako aurrekontua: 6.687 €</i></p>
<b>PREBENTZIOA-10</b>	Herritarren sentsibilizaziorako kanpainak: etxean eta jatetxeetan xahutzea prebenitzea (Gourmet Bag).	<p>Aurrerapen maila</p>  <p>72.195 €</p>
PREBENTZIOA-10.1	Gure planeta zaintzen:	<ul style="list-style-type: none"> <li>· Proiektu honek jarraipena ematen dio 2021az geroztik garatzen den egitasmoari, Gipuzkoako</li> </ul>

	Elikagaiak alferrik galtzea, jasangarritasuna eta klima aldaketa ikasgelan	ikasleak elikagaien hondakinen inguruan sentsibilizatzeko lanekin loturik. 2024an 32 tailer eman dira (bakoitza 2 saiotan) 9 ikastetxetan, eta 10 eta 14 urte bitarteko 260 neska eta 247 mutilek parte hartu zuten. <i>Aurreratze maila: % 100      Gauzatutako aurrekontua: 18.096 €</i>
PREBENTZIOA-10.2	Elikagai hondakinak neurtzea eta prebenitzea Reale Arena estadioan	<ul style="list-style-type: none"> <li>Zalantzarik gabe, kirol ekitaldien erronketako bat da prebentzioa lantzea elikagaiak ez xahutzeko, nahiz eta gehiago ere badiren. Gipuzkoan, Real Arenako futbol partidak dira ekitaldirik garrantzitsuenak eta nabarmenenak, bai jende kopuruagatik, bai banatzen den elikagai kantitateagatik.</li> <li>Real Sociedad Fundazioaren laguntzarekin, Trantsizio Ekologikoko Zuzendaritzak azterketa aitzindari bat egin zuen estadio horretako elikagai hondakinak neurtzeko eta prebenitzeko. Estadioan elikagai gutxiago xahutzeko baliagarria izateaz gainera, azterketak eredu gisa ere balio du lurraldeko beste kirol ekitaldi batzuetarako.</li> </ul> <i>Aurreratze maila: % 100      Gauzatutako aurrekontua: 17.860 €</i>
PREBENTZIOA-10.3	Gourmet Bag, 2024	<ul style="list-style-type: none"> <li>Proiektuaren helburua izan zen Gourmet Bag poltsen formatu berri bat prototipatzea Gipuzkoan, elikagai xahuketari buruzko lege berriarekin bat datozen ontzi itzulgarriekin. Hala, alternatiba jasangarri bat eskaini nahi izan zitzaion HORECA sektoreari, elikagai xahuketari buruzko lege berriari jarraikiz. Formatu berriko Gourmet Bag poltsak diseinatu eta ezarri nahi ziren, eta herritarrak zein HORECA sektorea sentsibilizatu elikagaiak xahutzearen inguruan. Era berean, establezimendu batzuetatik bildutako informazioan oinarriturik, askotariko ontzi eta sistemen arteko konparazioa egin zen. Proiektu hau Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Ostalaritzako Enpresaburuen Elkartearen arteko hitzarmenaren barruan kokatzen da, eta helburua da elikagaien hondakinen arloan indarrean dagoen esparru berrira egokitzen laguntzea sektoreari.</li> </ul> <i>Aurreratze maila: % 100      Gauzatutako aurrekontua: 18.150 €</i>
PREBENTZIOA-10.4	Jardunaldi teknikoak: elikagai xahuketa HORECA sektorean	<ul style="list-style-type: none"> <li>2024an, elikagaiak xahutzeari buruzko jardunaldi tekniko batzuk egin ziren, HORECA sektoreari zuzenduta. Jardunaldien bidez, helburu espezifiko hauek landu ziren: HORECA sektoreari elikagai xahuketari eta erabilera bakarreko ontziei buruzko lege berriaren xehetasunak ematea, sektorea esparru arautzaile berrira egokitu ahal izateko</li> </ul>


		<p>alternatiba inspiratzaileak ezagutzea, eta sektorerako etorkizuna elkarrekin sortzea Gipuzkoan, sektorea egokitzea erraztuko duten ekintzak eta neurriak definituta. Proiektu hau Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Ostalaritzako Enpresaburuen Elkartearen arteko hitzarmenaren barruan kokatzen da, eta helburua da elikagaien hondakinen arloan indarrean dagoen esparru berrira egokitzen laguntzea sektoreari.</p> <p><i>Aurreratze maila: % 100      Gauzatutako aurrekontua: 18.090 €</i></p>
<b>PREBENTZIOA-11</b>	Ostalaritzaren, jatetxeen, catering zerbitzuen eta bestelako sortzaile batzuen sektoretik datozen elikagaien soberakinak biltzeko eta banatzeko sare bat bultzatzea. Sare hori gizarte laguntzako zentroetara zabaltzea.	<p style="text-align: right;"><b>Aurrerapen maila</b></p> <div style="text-align: center;">  <p><b>100%</b></p> <p><b>48.400 €</b></p> </div>
PREBENTZIOA-11.1	Gipuzkoako elikadura sistemako elikagai xahuketa aztertzea	<ul style="list-style-type: none"> <li>Proiektu horren bidez, berriz lortu nahi izan da elikagai xahuketa, eta, Gipuzkoaren kasuan, aurreko ekitaldietan egindako lanekin jarraitu da.</li> </ul> <p><i>Aurreratze maila: % 100      Gauzatutako aurrekontua: 12.100 €</i></p>
PREBENTZIOA-11.2	Hitzarmena ostalaritzarekin	<ul style="list-style-type: none"> <li>Gipuzkoako Ostalaritzako Enpresaburuen Elkarteak zerbitzu sorta zabala eta aholkularitza indibidualizatua eskaintzen ditu Gipuzkoako ostalaritza sektorearen beharrak asetzeari begira, eta, Donostiako Ostalaritzaren Jasangarritasuna Hobetzeko Programan (Jasangarria 3.0), elikagai gutxiago xahutzeko konpromiso sendoa adierazten du.</li> <li>Hona hemen Gipuzkoako Foru Aldundiak lankidetzat hitzarmen horren esparruan egindako proiektuak: <ul style="list-style-type: none"> <li><u>Ontzi jasangarrien</u> formatu bat garatzea (itzulgarriak eta/edo birziklagarriak), Gipuzkoako ostalaritza sektorean erabiltzeko, kontsumitzaileek batere kostu gehigarririk gabe eraman ahal izan ditzaten kontsumitu ez dituzten elikagai ordainduak.</li> <li>Gipuzkoako ostalaritzaren sektoreko <u>elikagai xahuketari buruzko</u> Jardunaldi Teknikoak.</li> </ul> </li> </ul> <p><i>Aurreratze maila: % 100      Gauzatutako aurrekontua: 36.300 €</i></p>
PREBENTZIOA-11.3	Laguntzeko berreskuratzea	<ul style="list-style-type: none"> <li>Proiektu honen xedea da kontsumo kate jasangarri bat sortzea, abiapuntu gisa hartuta kontsumitu bai baina merkaturatu ezin daitezkeen produktuak aprobetxatzea, ondoren herritar behartsuenei</li> </ul>



		<p>emateko (kontuan izanik elikagai enpresek suntsitu egingo lituzketela bestela).</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>Gipuzkoako Foru Aldundiko Trantsizio Ekologikoko Departamentuak urtero egiten duen dirulaguntza deialdiaren esparruan gauzatu da ekintza hori.</li> </ul> <p><i>Aurreratze maila: % 100      Gauzatutako aurrekontua: 0 €<sup>25</sup></i></p>
PREBENTZIOA-11.4	Elikagaiak ez xahutzea	<ul style="list-style-type: none"> <li>Proiektu pilotu horren helburua izan zen proba bat egitea JA Mogel ikastetxeko eta Egogain adinekoen egoitzako jantokietan elikagaiak xahutzea prebenitzeko plana gauzatzeko, eta, ondoren, mankomunitateko beste zentro batzuetara estrapolatu ahal izateko.</li> <li>Gipuzkoako Foru Aldundiko Trantsizio Ekologikoko Departamentuak urtero egiten duen dirulaguntza deialdiaren esparruan gauzatu da ekintza hori.</li> </ul> <p><i>Aurreratze maila: % 100      Gauzatutako aurrekontua: 0 €<sup>26</sup></i></p>
PREBENTZIOA-11.5	Rexcatering: soberan gelditutako elikagaiak	<ul style="list-style-type: none"> <li>IES Altza BHI ikastetxean elikagai xahuketa prebenitzeko proiektuarekin jarraitzea, soberan gelditutako errazioak aprobetxatuta eta janaria banatzeko makina batean eskuragarri jarrita.</li> <li>Gipuzkoako Foru Aldundiko Trantsizio Ekologikoko Departamentuak urtero egiten duen dirulaguntza deialdiaren esparruan gauzatu da ekintza hori.</li> </ul> <p><i>Aurreratze maila: % 100      Gauzatutako aurrekontua: 0 €<sup>27</sup></i></p>
PREBENTZIOA-12	Elikadura soberakinen sorkuntza eta prebentziorako adierazleen jarraipena. Diagnostikoa eguneratzea.	<p style="text-align: right;"><b>Aurrerapen maila</b></p> <div style="text-align: center;">  <p>100%</p> <p>0 €</p> </div>
PREBENTZIOA-12.1	Elikadura soberakinen sorkuntza eta prebentziorako adierazleen jarraipena.	<ul style="list-style-type: none"> <li>Gipuzkoako Foru Aldundia eta Deustuko Unibertsitatea lankidetzan aritu dira azken urteotan Gipuzkoako elikagai xahuketaren arazoa aztertzeko. Lankidetzaren ondorioz, azterlan bat garatu zen 2022an elikagai hondakinak kuantifikatzeko metodologia bat diseinatzeko (NEURRI proiektua), eta 2023an elikagai xahuketaren zenbatespenaren emaitzak aztertu zituzten, Gipuzkoan eta Bizkaian antzeko ezaugarriak dituzten udalerrietan lortutako emaitzen analisi konparatibo batean (NEURTZEN proiektua). Aurreko bi urteetan lortutako emaitza</li> </ul>

<sup>25</sup> PREBENTZIOA-7.1 ekintzan jasotako aurrekontua

<sup>26</sup> PREBENTZIOA-7.1 ekintzan jasotako aurrekontua

<sup>27</sup> PREBENTZIOA-7.1 ekintzan jasotako aurrekontua

		<p>objektiboak kontuan hartuta, 2024an Deustuko Unibertsitateak aurrera egin du xahuketa kuantifikatzeko metodologia estandarizatuak garatzen. (BIRZIKLATZEA-5)</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>Real Sociedad Fundazioaren laguntzarekin, Trantsizio Ekologikoko Zuzendaritzak azterketa aitzindari bat egin zuen 2024an, futbol estadio horretako elikagai hondakinak neurtzeko eta prebenitzeko. Estadio hain garrantzitsu horretan elikagai gutxiago xahutzeko baliagarria izateaz gainera, azterketak eredu gisa ere balio du lurraldeko beste kirol ekitaldi batzuetarako. (PREBENTZIOA-10.2)</li> </ul> <p><i>Aurreratze maila: % 100</i>      <i>Gauzatutako aurrekontua: 0 €</i></p>
<p><b>PREBENTZIOA-13</b></p>	<p>Prebentzioko eta gaikako bilketako irizpideak sartzea eta zabaltzea sukaldaritzako hezkuntza guneetan: sortutako azpiproduktuak eta gastronomia sorkuntzan egindako ikerketak, azpiproduktuak berrerabilita.</p>	<p><b>Aurrerapen maila</b></p>  <p><b>63.840 €</b></p>
<p><b>PREBENTZIOA-13.1</b></p>	<p>Hitzarmena Basque Culinary Center (BCC) Fundazioarekin</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Gipuzkoako Foru Aldundiak, lurraldeko beste erakunde batzuekin batera, eta, bereziki, Basque Culinary Centerrekin orpoz orpo eta gastronomiaren arloan duen zentro teknologiko sektorialaren bitartez, aprobetxatu egin nahi du Donostia eta Gipuzkoa gastronomiaren nazioarteko erreferentzia direla, elikadura sistemaren zirkulartasunerako trantsizioa bultzatzeko. Lehendik ere bada lankidetzaren egonkorra Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta BCCren artean, 2019az geroztik egindako lanaren ondorioz.</li> <li>2022an, Gipuzkoako eta inguruko lurraldeetako elikagaien ekoizpenaren identifikazio eta inbentario proiektua garatu zen. Proiektu hori Basque Culinary Centerrek 2021-2023 aldirako Ibilbide Orrian garatu duen Proiektuen Proposamen Planean dago jasota, Gipuzkoako elikadura sistema zirkulartasunerantz bideratzeko.</li> <li>2023an, 2021-2023 aldirako Ibilbide Orri horretan jasotako proiektuak garatzen jarraitzeko, BBCK bi proiektu hauek gauzatu zituen: <ul style="list-style-type: none"> <li>“Gipuzkoako elikadura sistemaren diagnostikoa - Elikatzeko kontsumoa”</li> <li>“Gastronomia sareak Gipuzkoan”.</li> </ul> </li> <li>2024an, ikerketa jarduerak gai bera aztertzen jarraitu du, baina sukaldaritza establezimenduetan zentratu da, irizten baitaio horietan hobetzeko</li> </ul>

Arkitekturako Goi Eskola Teknikoa eta HABIC (Euskadiko ekipamendu, altzari, eta diseinu klusterra) lankidetzan aritu dira, eta zenbait jarduera jarri dituzte abian berrikuntzarekin, prestakuntzarekin eta jakintza sortu eta eraldatzearekin lotuta, guztiak ere lurraldean arkitektura

jasangarriaren eta produktu berritzaileen diseinua eta garapena sustatzera bideraturik. Lankidetza horren ondorioz, eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Trantsizio Ekologikoko Departamentuarekin sinatutako hitzarmenari esker, UPV/EHU-HABIC Enpresa Ikasgela izeneko enpresa berritzailea sortu zen, eredu jasangarri eta arduratsu baterantz eraldatzeko lan egiteko; horretarako, ekodiseinuan oinarrituriko eta ingurumena errespetatzen duten produktuak eta sistemak proposatu dituzte, eta sektorearen lehiakortasunerako abantailak sortu dituzte, jasangarritasuna bektore gisa hartuta. 2024an, hitzarmenaren oinarria izan zen UPV/EHU-HABIC ENPRESA IKASGELA sustatzea EHUn Gipuzkoako Campuseko Arkitektura Eskolan, zeina eskusiboki erabili baitzen une bakoitzean garatutako jardueren izaerara egokitutako ezaugarriekin, kontuan hartuta aldeek espazio hori erabil zezaketela jarduera osagarriak egiteko, alde aurretik adostuta.

**4.- Ingeniaritza Kimikoko Saila, Ingurumenaren Saila eta Materialen + Teknologien Taldea.** Hitzarmen hori bereziki sortua da unibertsitatearen esparruan ekonomia zirkularraren alorreko ikerketa eta garapena bultzatzeko. Akordio horren ondorioz, lehen ikerketa proiektuetan Gipuzkoako kostaldeko, ibaietako eta saneamendu sareetako mikroplastikoen arazoa aztertu zen. Era berean, proiektu berriagoen ikerketa ardatza birziklatzeko estrategiak garatzea izan da; hain zuzen ere, ehungintzako hondakinetan eta, bereziki, poliamidetan (komertzialki nylon izenez ezagutzen direnak) aurkitutako material plastikoak birziklatzekoak. 2024an lankidetza ildo horrekin jarraitu zen, ekonomia zirkularrarekin lotutako ekimenak garatzen segitzeko. Horretarako, EHUK bi proiektu landu ditu. Proiektuetako batean, jarraipena eman zaie 2023an poliamida hondakinak birziklatzearekin lotuta hasitako ikerketa lanei, eta beste proiektuan, berriz, zirkulartasun estrategiak aztertu dira moto elektriko bat fabrikatzeko diseinuan eta baliabideen

		<p>erabileran efizientziari aplikatuta (MotoStudent proiektua). Ingeniaritzako Graduko ikasleek garatu dute, beren arloetan adituak diren irakasleen ikuskaritzarekin.</p>
<p>BIRZIKLATZEA-5.2</p>	<p>Hitzarmena Donostia Zinemaldiarekin</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Gipuzkoako Foru Aldundiak jasangarritasun printzipioak sartzeari bultzatu nahi du kultura ekitaldiak antolatzean eta ekoiztean. Horretarako, Donostia Zinemaldiak hedabideetan duen inpaktu handia aprobetxatu nahi da, ekitaldi horren antolatzaileekin lankidetzan, jarduera ingurumenaren ikuspegitik arduraz gauzatzen dela sustatzeko eta Gipuzkoako herritarrak jasangarritasunarekin lotutako balio horien inguruan kontzientziatzeko.</li> <li>Lankidetzak akordio horretan, Gipuzkoako Foru Aldundiko Jasangarritasun Departamentuak konpromisoa hartu zuen 2024an Donostia Zinemaldiaren esku jarriko zituela: <ul style="list-style-type: none"> <li>Material % 100 birziklatuz eta birziklagarri egitea 1.840 m<sup>2</sup> alfonbra gorri, Kurtaal jauregiaren kanpoaldean eta María Cristina hoteletik Victoria Eugenia antzokira doan tartean jartzeko.</li> <li>Donostia Zinemaldiak esleitutako enpresak moketaren lehenbiziko jarraldia garraiatzea, muntatzea eta desmuntatzea.</li> <li>Emaus Gizarte Fundazioarekin eta SpanSet enpresarekin lankidetzan, ezer ez alferrik galtzeko proiektua bultzatzea. Haren bidez, poltsak egin eta Gipuzkoako Elikagaien Bankuari eman zizkieten. Poltsa horiek fabrikatzeko beharrezko materiala lortzeko, Zinemaldiko moketa gorria baliatu zuten: 1.840 m<sup>2</sup>, hain zuzen ere.</li> </ul> </li> </ul> <p><i>Aurreratze maila: % 100      Gauzatutako aurrekontua: 18.146 €</i></p>
<p>BIRZIKLATZEA-5.3</p>	<p>Donostia Zinemaldiko alfonbra gorria hornitzea eta, ondoren, poltsa gisa birziklatzea</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Gipuzkoako Foru Aldundiko Jasangarritasun Departamentua elkarlanean ari da Donostiako Nazioarteko Zinemaldia antolatzen, eta, hartara, ingurumen jasangarritasuneko irizpideak ezartzen dira jaialdi horren edizioetan. Helburu horrekin, besteak beste, desfilean</li> </ul>

		<p>erabilitako alfonbra gorriaren hornidura finantzatu da (15 biribilki, luzean 65 m eta zabalean 2,06 metro dituztenak).</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>2024an, polipropilenoa erabili zen alfonbra birziklatu eta birziklagarri hori fabrikatzeko. Konponbide horren ingurumen interesa latexa kentzean eta haren ordezkopolimero birziklatu bat jartzean oinarritzen da. Aldi berean, Emaus Fundazioak birziklatu egin zituen, 1.315 eskuko poltsa egiteko. Gainera, poltsak salduta lortutako dirua Gipuzkoako Elikagaien Bankuari helarazi zitzaion, eta izaera sozial horrekin ekonomia zirkularreko ingurumen ekintza biribildu zen. <p><i>Aurreratze maila: % 100      Gauzatutako aurrekontua: 36.285 €</i></p> </li></ul>
BIRZIKLATZEA-5.4	IFAT 2024 azokara joatea	<ul style="list-style-type: none"> <li>Gipuzkoako Foru Aldundia IFATen izan zen (birziklapen eta jasangarritasun teknologien alorreko azoka nagusian), Gipuzkoako enpresen ordezkari baten buru. Foro hori munduko garrantzitsua da uraren, hondakin uren, hondakinen eta lehengaien kudeaketari loturik, eta maiatzaren 13tik 17ra egin zen Alemaniako Munich hirian. 60 herrialde baino gehiagotako 3.100 erakuslek parte hartzen dute azoka horretan, eta ingurumen ekonomia globala bultzatzeko estrategia eta soluzio ugari aurkezten dituzte.</li> </ul> <p><i>Aurreratze maila: % 100      Gauzatutako aurrekontua: 7.442 €</i></p>
<b>BIRZIKLATZEA-6</b>	Esperientzia arrakastatsuak trukatzeko, identifikatzeko eta zabaltzeko, Gipuzkoako GK Recycling birziklatze klusterraren bidez. Bilketako jardunbide onenak zabaltzea.	<p><b>Aurrerapen maila</b></p>  <p>100%</p> <p>0 €</p>
BIRZIKLATZEA-6.1	Esperientzia arrakastatsuak trukatzeko, identifikatzeko eta zabaltzeko ekintzak	<ul style="list-style-type: none"> <li>GFAk etengabeko ekintzak egiten ditu esperientzia arrakastatsuak trukatzeko, identifikatzeko eta zabaltzeko, Gipuzkoako Birziklatze Klusterraren bidez (GK Recycling). Baina, zalantzarik gabe, nabarmendu beharrezkoa da lurraldean egiten den Ekonomia Zirkularren Nazioarteko Topaketa, nazioarteko oihartzuna kontuan hartuta.</li> </ul> <p><i>Aurreratze maila: % 100</i> <i>Gauzatutako aurrekontua: 0 €</i></p>

#### 5.1.2.3.4 Balorizazio programa: materiala eta energia


Programa horrek bi jarduera biltzen ditu guztira, zeinak 2024an gauzatzeko baitzeuden aurreikusita.

Programaren aurrerapen maila, urtean gauzatu beharreko jarduketan kopuruari eta gauzatzeko mailari erreparatuta, % 100ekoa da.

		<b>BALORIZAZIO PROGRAMA: MATERIALA ETA ENERGIA</b>
<b>BALORIZAZIOA-1</b>	I+G+Baren arloko laguntza, ekonomia zirkularreko eta bioekonomiako produktu berriei aplikatzeko.	Aurrerapen maila  12.755 €
BALORIZAZIOA-1.1	Baterien industrian ekonomia zirkularra txertatzeak ekarriko dituen aukerei buruzko nazioarteko jardunaldia	<ul style="list-style-type: none"> <li>Ekainaren 13an nazioarteko lan tailer bat antolatu zen Naturklimaren egoitzan, ekonomia zirkularra txertatzeak baterien industrian sortuko dituen aukerak lantzeko.</li> </ul> Aurreratze maila: % 100    Gauzatutako aurrekontua: 12.755 €
BALORIZAZIOA-1.2	Altzariak egiteko tapoiak biltzea eta ASPACE elkarteari ematea	<ul style="list-style-type: none"> <li>Altzariak egiteko tapoiak biltzeko eta ASPACE elkarteari emateko kanpaina.</li> <li>Gipuzkoako Foru Aldundiko Trantsizio Ekologikoko Departamentuak urtero egiten duen dirulaguntza deialdiaren esparruan gauzatu da ekintza hori.</li> </ul> Aurreratze maila: % 100    Gauzatutako aurrekontua: 0 € <sup>57</sup>
BALORIZAZIOA-1.3	Tapoiak biltzeko kanpaina Beasainen, ondoren altzariak egiteko	<ul style="list-style-type: none"> <li>Beasainen hiri altzariak fabrikatzea, bereizita bildutako plastikozko tapoietatik abiatuta.</li> <li>Gipuzkoako Foru Aldundiko Trantsizio Ekologikoko Departamentuak urtero egiten duen dirulaguntza deialdiaren esparruan gauzatu da ekintza hori.</li> </ul> Aurreratze maila: % 100    Gauzatutako aurrekontua: 0 € <sup>58</sup>
BALORIZAZIOA-1.4	Texcir 2	<ul style="list-style-type: none"> <li>Ehunak birziklatzeko eta haiekin merchandising produktuak diseinatu eta fabrikatzeko proiektuaren bigarren fasea.</li> </ul>

<sup>57</sup> PREBENTZIOA-7.1 ekintzan jasotako aurrekontua

<sup>58</sup> PREBENTZIOA-7.1 ekintzan jasotako aurrekontua

		<ul style="list-style-type: none"> <li>Gipuzkoako Foru Aldundiko Trantsizio Ekologikoko Departamentuak urtero egiten duen dirulaguntza deialdiaren esparruan gauzatu da ekintza hori.</li> </ul> <p><i>Aurreratze maila: % 100    Gauzatutako aurrekontua: 0 €<sup>59</sup></i></p>
<b>BALORIZAZIOA-2</b>	Gipuzkoako Ingurumen Gunearen azterketa eta jarraipen azterlanak.	<p style="text-align: right;"><b>Aurrerapen maila</b></p> <div style="text-align: center;">  <p><b>100%</b></p> <p><b>429.128 €</b></p> </div>
BALORIZAZIOA-2.1	Gipuzkoako Ingurumen Gunearen kontrol epidemiologikoa	<ul style="list-style-type: none"> <li>Balorazio energetikorako instalazioarekin lotutako azterketa epidemiologikoa egitea. 2024an, aurreko azterketa epidemiologikoetan lortutako balioen bilakaera eta korrelazioa ziurtatzeko, azterlanak lau lan ildo aurreikusituz: aireko kutsatzaile atmosferikoekiko esposizioaren ebaluazioa (kutsatzaile gisa hartzen dira dioxinak eta furanoak, bifenilo polikloratuak, traza elementuak, hidrokarburo aromatiko poliziklikoak eta PM<sub>2,5</sub> partikulak); kutsatzaileekiko esposizioaren ebaluazioa, biomarkatzaileen analisitik abiatuta (dioxinak eta furanoak, bifenilo polikloratuak eta traza elementuak hartzen dira kutsatzaitzat); epe laburreko ugalketa osasunaren ebaluazioa; eta, azkenik, tokiko ekoizpeneko eta lurzoruetako elikagaietan (esnea eta arrautzak) doxinen, furanoen eta bifenilo polikloratuen kontzentrazioa aztertzea.</li> <li>Proiektu hori hiru urteko kontratazio bat da.</li> </ul> <p><i>Aurreratze maila: % 100    Gauzatutako aurrekontua: 359.959 €</i></p>
BALORIZAZIOA-2.2	Azterlan epidemiologikoaren jarraipena	<ul style="list-style-type: none"> <li>2024an egindako azterketa epidemiologikoaren jarraipena egiteko laguntza lanak. Proiektu hori hiru urteko kontratazio bat da.</li> </ul> <p><i>Aurreratze maila: % 100    Gauzatutako aurrekontua: 48.400 €</i></p>
BALORIZAZIOA-2.3	Gipuzkoako Ingurumen Guneko laginak biltegitzea eta mantentzea	<ul style="list-style-type: none"> <li>2019an amaitu zen «Gipuzkoako Ingurumen Gunearen zati den balorizazio energetikoko instalazioari buruzko azterketa epidemiologikoa» proiektuan lortutako lagin biologikoen soberakinak 2024an biltegitzeko eta mantentzeko zerbitzua.</li> </ul>



<sup>59</sup> PREBENTZIOA-7.1 ekintzan jasotako aurrekontua

		<p>Laginak Euskal Biobankuan gordetzen dira, etorkizuneko azterlan edo ikerketetan erabiltzeko beharra sortzen bada ere.</p> <p><i>Aurreratze maila: % 100 Gauzatutako aurrekontua: 2.619 €</i></p>
BALORIZAZIOA-2.4	Gipuzkoako Ingurumen Gunearen analisiak eta kontrolak	<ul style="list-style-type: none"> <li>Datuen sekuentzia osoa izateko, beharrezkoa da PM<sub>2,5</sub> partikulen laginketa aldiak osatzea (Gipuzkoa 1 Ingurumen Guneak sortzen dituen kutsatzaile atmosferikoen osasun arriskuak ebaluatzeko egiten ari den azterketa epidemiologikoaren faseetan eginak dira). Horregatik, beharrezkoa da PM<sub>2,5</sub> partikulen laginketa aldi horiek osatzea, 2023ko urritik 2024ko uztaiera bitartean lortutako laginen datuekin.</li> </ul> <p><i>Aurreratze maila: % 100 Gauzatutako aurrekontua: 18.150 €</i></p>

#### 5.1.2.4 Deuseztapena optimizatzeari buruzko programa

Programa horrek bi jarduera biltzen ditu orotara, eta horietako bat 2024an gauzatzeko dago aurreikusita.

Programaren aurrerapen maila, urtean gauzatu beharreko jarduketan kopuruari eta gauzatzeko mailari erreparatuta, % 100ekoa da.

		<h3>DEUSEZTAPENA OPTIMIZATZEARI BURUZKO PROGRAMA</h3>
<b>DEUSESTATZEA-1</b>	Bigarren mailako hiri hondakinen isurketa minimizatzea eta optimizatzea.	Aurrerapen maila  <b>0 €</b>
<b>DEUSESTATZEA-1.1</b>	Bigarren mailako hiri hondakinen isurketa minimizatzea eta optimizatzea.	<ul style="list-style-type: none"> <li>Azken urteetan, baita 2024an ere, bigarren mailako hondakinen isurketa minimizatzea eta optimizatzea bermatzeko ekintzak garatzen ari dira Gipuzkoako Lurralde Historikoan. Gaur egun, Gipuzkoako Ingurumen Gunetik datozen errauntsak baino ez dira isurtzen, inertizatu ondoren.</li> </ul> <p><i>Aurreratze maila: % 100 Gauzatutako aurrekontua: 0 €</i></p>

## 5.2 Betetze-mailaren laburpen orokorra, 2024. urtea

Aurreko atalean jasotakoa kontuan hartuta, ondoriozta daiteke 2024an ekintzak gauzatzeko aurrerapen globalaren maila % 98ra iristen dela, eta aurrekontuaren betetze mailari dagokionez, berriz, % 95era. Atxikita taulan ikus daiteke nola banatzen diren bi portzentaje horiek programen arabera.

19. taula. Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Plan Orokorraren aurrerapen maila, 2024. urtea

Programa	Euroak		Aurrerapen maila	
	Aurreikusia	Errealia	Ekintzen arabera	Aurrekontuaren arabera
Behatoki programa	213.000	278.863	% 89	% 131
Prebentzio programa	1.963.000	1.737.983	% 95	% 89
Gaikako bilketarako programa	50.000	0	% 100	% 0
Berrerabiltzeko prestatzeko programa	110.000	100.000	% 100	% 91
Birziklatzeko programa	215.000	334.023	% 100	% 155
Balorizazio programa: materiala eta energia	491.000	441.883	% 100	% 90
Deuseztatzea optimizatzeari buruzko programa	0	0	% 100	
	<b>3.042.000</b>	<b>2.892.752</b>	<b>% 98</b>	<b>% 95</b>

Iturria: geuk egina.

Guztira, 120 ekintza gauzatu dira, berez 44 bazeuden ere aurreikusita.

Emitza horiei erreparatuta, ondoriozta daiteke oso ona dela betetze mailaren balantze orokorra. Programa guztietan gauzatu dira Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Plan Orokorrean hartutako konpromiso estrategikoak betetzera bideratutako ekintzak. Behatokiaren programak eta prebentziokoak bakarrik ez dute lortu % 100eko gauzatze maila.

## 6 HELBURUEN BETETZE MAILA, 2024. URTEA

Atal honek udal hondakinen sorrerak eta kudeaketak 2024an izan duten bilakaera aztertzen du. Txosten honetan aztertuko dira, batetik, Gipuzkoako 2024. urteko udal hondakinen inbentariotik eratorritako datuak, eta, bestetik, hondakin frakzio horren bilketan eta/edo tratamenduan eragiten duten beste agente batzuek bildutako eta emandako informaziotik eskuratutakoak.

Zehazki, Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Plan Orokorreko adierazleen balioa kalkulatu ahal izateko, inbentario horretan jasotako SCRAP memoriak aztertu dira, EAEko hiri hondakinen inbentariotik eratorritako beste datu batzuen artean.

### 6.1 Prebentzio helburuak

2024ko datuak aztertu ondotik, eta Gipuzkoako udal hondakinen sorreraren eta kudeaketaren bilakaerari dagokionez, ikus daiteke 322.616 tona hondakin sortu direla 2024an, iaz baino % 1,31 gehiago (4.180 tona).

2023arekin alderatuta, % 0,88koa da biztanleko eta urteko hondakinen sorreraren aldakuntza: 2023an 427,55 kilo sortu ziren biztanleko, eta 2024an, berriz, 431,32 kilo.

2. irudia. Sorkuntza datuak, Gipuzkoako bilketa motaren arabera banatuta. 2023-2024 urteak

Sarrera datuak / datos generación	2023		2024		Variación 2023-2024 Aldaketa
	Sorrera osoa / Total generación (t)	Kg/hab/año	Sorrera osoa / Total generación (t)	Kg/hab/año	
<b>Errefusa / Resto</b>	136.422	183,17	138.186	184,75	1,29%
<b>GAIKAKO BILKETA</b>					
Biohondakina / Biorresiduo	55.789	<b>74,91</b>	56.185	<b>75,12</b>	0,71%
Papera eta kartola / Papel y cartón	40.769	54,74	40.765	54,50	-0,01%
Ontzi arinak / Envases ligeros	25.135	33,75	26.217	35,05	4,30%
Cápsulas de café	96	0,13	100	0,13	4,03%
Beira / Vidrio	25.806	34,65	25.765	34,45	-0,16%
Tamaina Handikoak / Voluminosos	5.048	6,78	5.221	6,98	3,41%
Arropa / Textil	3.184	4,28	3.320	4,44	4,26%
Sukaldeko Olioa / Aceite de cocina	425	0,57	405	0,54	-4,69%
Pilak / Pilas	71	0,10	80	0,11	12,53%
Bestelakoak / Otros	25.691	34,49	26.372	35,26	2,65%
Guztira / Total	182.014	183,17	184.430	246,58	1,33%
Sorrera guztia / Generación total	318.436	427,55	322.616	431,32	1,31%

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia

Udal hondakinen sorrerak behera egin du 2010. urtearekin alderatuta, baina lortutako murrizketa (% 7,4) 2020an erdietsi behar zen murrizketa helburuaren azpitik geratu da (% 10).

20. taula. Prebentzio helburuen betetze maila, 2024. urtea

		Bete beharreko helburuak			Zer moduz goaz?	
		2020	2025	2030	2024	Betetze bidearen balorazioa
PREBENTZIOA-01	Udal hondakinen sorrera murriztea 2010arekin alderatuta	-% 10	-% 13	-% 15	-% 7,4	☹️
PREBENTZIOA-02	Hiri hondakinen sorrera mugatzea (EBH gabe) (kg/bizt/urte)			419 kg. /biz/urte	431,4 kg. /biz/urte	😊
PREBENTZIOA-03	Elikagai hondakinen <i>per capita</i> sorrera murriztea 2020arekin alderatuta		-% 25	-% 50	e.d.	
PREBENTZIOA-04	Elikagai hondakinen <i>per capita</i> sorkuntza murriztea txikizkako salmentaren eta kontsumitzaileen arloan 2030erako, 2020arekin alderatuta			-% 50	-% 41,3	😊
PREBENTZIOA-05	Ontzien sorrera murriztea, 2010. urtearekin alderatuta		-% 13	-% 15	-% 4,6	☹️
PREBENTZIOA-06	Ontzi arinen sorrera murriztea, 2019. urtearekin alderatuta		-% 5	-% 20	% 0,2	☹️
PREBENTZIOA-07	Plastikozko poltsa arinen urteko kontsumoaren gehieneko muga (pertsone bakoitzeko poltsa arinen unitateak edo pisuaren arabera adierazitako helburu baliokidea)	90	25		e.d.	

## 6.2 Berrerabiltzeko prestatzeko helburuak

**Berrerabiltzeko prestateta tasa** hiri hondakin guztien % 0,9 da. Adierazle hori helburuaren azpitik geratu da, 2020an % 2ra iritsi baitzen, eta urrun dago 2025ean lortu beharreko % 5etik.


21. taula. Berrerabiltzeko prestatzeko helburuen betetze maila, 2024. urtea

		Bete beharreko helburuak				Zer moduz goaz?	
		2020	2025	2030	2035	2024	Betetze bidearen balorazioa
BERRERABILTZEA-01	Aparatu handiak berrerabiltzeko gutxieneko prestateta indizea lortzea	% 3				e.d.	
BERRERABILTZEA-02	Osagai arriskutsuak dituzten informatikako eta telekomunikazioetako aparatu txikiak berrerabiltzeko gutxieneko prestateta tasa bat lortzea	% 4				e.d.	
BERRERABILTZEA-03	Hiri hondakin guztiak berrerabiltzeko gutxieneko prestateta indizea lortzea		% 5	% 10	% 15	% 0,96	☹️

## 6.3 Gaikako bilketarako helburuak

**Gaikako bilketari** dagokionez, azpimarratu behar da datuak batez ere egonkorak direla, beheranzko joera txiki batekin. Gaikako bilketa globala % 57,2 da, 2023an izanikoaren antzekoa.


3. irudia. Gipuzkoa+ gaikako bilketa, hondakin tipologiaren arabera (tonak). 2007-2024 urteak



Kopuru absolututan, materia organikoaren gaikako bilketa nabarmentzen da bereziki. Orotara 56.185 tona sukalde eta inausketa hondakin bildu dira, baita etxeko konpostajera eta komunitateko konpostajera bideratutakoak ere, hau da, urtean 75,1 kg biztanleko.

**Gaikako bilketa eta bereizketa tasa**, GIG1 eta GIG2 guneetan masan jasotako bilketa selektiboaren eta birziklagarrien bereizketaren batura gisa zenbatuta, 20 puntu inguru handiagoa da gainerakoen frakzioa baino, eta % 59,2koa da, 2023an baino ehuneko 0,1 puntu gehiago<sup>60</sup>.

4. irudia. Birziklatze datuak, frakzioen eta guztizkoaren arabera, eta gaikako bilketaren tasa + Gipuzkoako gainerako zatien berreskurapena. 2024 vs 2023



Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia

<sup>60</sup> 2023rako argitaratutako indizea handixeagoa izan zen, % 60,37. Hala ere, hondakinen partida bat erretiratu egin da katalogotik industrialak izateagatik, eta 2023ko datua % 59,34ra zuzendu da.

22. taula. Gaikako bilketako helburuen betetze maila, 2024. urtea

		Bete beharreko helburuak				Zer moduz goaz?	
		2020	2025	2030	2035	2024	Betetze bidearen balorazioa
GAIKAKO BILKETA-01	Bereizita bildutako udal hondakinen gutxieneko indize bat lortzea, sortutako udal hondakinen guztizko pisuaren gainean.		% 75	% 85	% 50	% 57,2	😊 <sup>61</sup>
GAIKAKO BILKETA-02	Pilak eta bateriak bereizita biltzeko gutxieneko indize bat lortzea	% 50				% 30,8	😞
GAIKAKO BILKETA-03	Tresna elektriko eta elektronikoen hondakinak bereizita biltzeko gutxieneko indize bat lortzea, merkatuan sartutako GEEen batez besteko pisuari dagokionez	% 65				% 42,7	😞
GAIKAKO BILKETA-04	Tresna elektriko eta elektronikoen hondakinak bereizita biltzeko gutxieneko indize bat lortzea, horien batez besteko sorrera pisuari dagokionez	% 85				% 85,0	😊
GAIKAKO BILKETA-05	Fibrozementu frakzioa bereizita bil daitezen ezartzea (biztanleen %)		% 100			% 53,3	😞
GAIKAKO BILKETA-06	Etxeko hondakin arriskutsuak bereizita bil daitezen ezartzea (biztanleen %)		% 100			% 100	😊
GAIKAKO BILKETA-07	Ehunkiak bereizita bil daitezen ezartzea (biztanleen %)		% 100			% 100	😊
GAIKAKO BILKETA-08	Biohondakinak bereizita bil daitezen ezartzea (biztanleen %)		% 100 (2024)			% 100	😊
GAIKAKO BILKETA-09	Biohondakinetan desegokien gehieneko ehunekoa mugatzea		% 20 (2022)	% 15 (2027)		% 4,9 <sup>62</sup>	😊
GAIKAKO BILKETA-10	Sukaldeko olio bereizita bil dadin ezartzea (biztanleen %)		% 100 (2024)			% 100	😊

<sup>61</sup> 7/2022 Legearen helburua % 50 da 2035erako, eta Gipuzkoak dagoeneko betetzen du hori. Hala ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Hondakin Arriskutsuak Prebenitzeko eta Kudeatzeko 2030erako Planeko helburuak anbizio handiagokoak dira, eta, 2025eko baliora iristeko, beharrezkoa litzateke mankomunitate guztiek gaur egun gaikako bilketa onena duen mankomunitatean bezainbeste bereiztea. 2030eko helburura iristeko, udalerrri guztiek bereizi beharko lukete Gipuzkoako onenak adina.

<sup>62</sup> 2023. urteari dagokion datua.

		Bete beharreko helburuak				Zer moduz goaz?	
		2020	2025	2030	2035	2024	Betetze bidearen balorazioa
GAIKAKO BILKETA-11	IV. eranskinen E atalean aipatutako plastikozko produktuak bereizita biltzeko gutxieneko indizea lortzea (erabilera bakarreko plastikozko botilak, horien azalak eta tapoiak barne).		% 70 (2023) eta % 77 (2025)	% 85 (2027) eta % 90 (2029)		e.d.	
GAIKAKO BILKETA-12	papera, metalak, plastikoa eta beira bereizita biltzea, toki eskumena (biztanleen %)		% 100 (2022)			% 100	😊
GAIKAKO BILKETA-13	Tamaina handiko hondakinak bereizita bil daitezzen ezartzea (biztanleen %)		% 100			% 100	😊
GAIKAKO BILKETA-14	Tresna elektriko eta elektronikoen hondakinak bereizita bil daitezzen ezartzea (biztanleen %)		% 100			% 100	😊
GAIKAKO BILKETA-15	Etxeko ontzi guztietatik bereizita biltzeko gutxieneko indize bat lortzea.		% 65	% 75	% 85	% 73,3	😊
GAIKAKO BILKETA-16	Beirazko ontziak bereizita biltzeko gutxieneko indize bat lortzea.		% 70	% 80	% 90	% 86,7	😊
GAIKAKO BILKETA-17	Plastikozko ontziak bereizita biltzeko gutxieneko indize bat lortzea.		% 55	% 65	% 75	% 59,7	😊
GAIKAKO BILKETA-18	Zurezko ontziak bereizita biltzeko gutxieneko indize bat lortzea.		% 30	% 40	% 60	% 91,1	😊
GAIKAKO BILKETA-19	Burdina metalezko ontziak bereizita biltzeko gutxieneko indize bat lortzea.		% 50	% 60	% 80	% 53,0	😊
GAIKAKO BILKETA-20	Aluminiozko ontziak bereizita biltzeko gutxieneko indize bat lortzea.		% 30	% 40	% 60	% 35,5	😊
GAIKAKO BILKETA-21	Edarietarako eta elikagaietarako kartoizko ontziak bereizita biltzeko gutxieneko indize bat lortzea.		% 75	% 90	% 95	% 66,3	😞
GAIKAKO BILKETA-22	Paperezko/kartoizko ontziak bereizita biltzeko gutxieneko indize bat lortzea.		% 75	% 90	% 95	% 77,0	😊
GAIKAKO BILKETA-23	Sendagai ontziak bereizita biltzeko gutxieneko indize bat lortzea.		% 15	% 25	% 35	e.d.	☐

		Bete beharreko helburuak				Zer moduz goaz?	
		2020	2025	2030	2035	2024	Betetze bidearen balorazioa
GAIKAKO BILKETA-24	Plastikozko botilak bereizita biltzeko gutxieneko indize bat lortzea.		% 70 (2023) eta % 77 (2025)	% 85 (2027) eta % 90 (2029)		e.d.	

## 6.4 Birziklatzeko helburuak

2024ko **birziklatze** tasa % 52,77 da, gainditu egiten du 2020rako % 50eko helburua, eta oso gertu dago 2025erako Europako % 55eko helburutik. Horren arabera, Gipuzkoa adierazle horretako lurralderik onena edo onenetakoa da estatua osoan. Hala eta guztiz ere, azken urteotako joerak erakusten du datua pixka bat jaitsi dela.

Erantsitako irudian ikusten den bezala, eta frakzioei erreparatuta, beiraren, paper eta kartoiaren eta ontzien bilketa tasak gainditu egiten du Europako 2025erako helburua.

23. taula. Birziklatzeko helburuen betetze maila, 2024. urtea

		Bete beharreko helburuak				Zer moduz goaz?	
		2020	2025	2030	2035	2024	Betetze bidearen balorazioa
BIRZIKLATZEA-01	Tresna elektriko eta elektronikoen hondakinak balorizatzeko gutxieneko indizea lortzea	% 75- % 85				% 58,2	☹️
BIRZIKLATZEA-02	Tresna elektriko eta elektronikoen hondakin guztiak berrerabiltzeko eta birziklatzeko gutxieneko indizea lortzea (%)	% 55- % 80				% 48,1	😐
BIRZIKLATZEA-03	Udal hondakinak berrerabiltzeko eta birziklatzeko gutxieneko prestaketa indizea lortzea		% 55	% 70		% 52,8	😊
BIRZIKLATZEA-04	Ontzi guztien gutxieneko birziklatze indizea lortzea			% 70		% 73,3	😊
BIRZIKLATZEA-05	Beirazko ontzien gutxieneko birziklatze indizea lortzea		% 70	% 75		% 86,7	😊
BIRZIKLATZEA-06	Paperezko eta kartoizko ontzien gutxieneko birziklatze indizea lortzea		% 75	% 85		% 76,1	😊
BIRZIKLATZEA-07	Burdina metalezko ontzien gutxieneko birziklatze indizea lortzea		% 70	% 80		% 80,8	😊
BIRZIKLATZEA-08	Aluminiozko ontzien gutxieneko birziklatze indizea lortzea		% 50	% 60		% 73,6	😊
BIRZIKLATZEA-09	Plastikozko ontzien gutxieneko birziklatze indizea lortzea		% 50	% 55		% 65,2	😊
BIRZIKLATZEA-10	Zurezko ontzien gutxieneko birziklatze indizea lortzea		% 25	% 30		% 91,1	😊

## 6.5 Balorizazio energetikoko helburuak

**Balorizazio energetikoa** izan dezaketen hondakinak —hala nola bioegonkortua— balorizazio energetikora bideratzen dira oso-osorik. Balorizazio energetikoaren datu globala gutxituz joango da birziklapena handitzen den heinean.

24. taula. Balorizazio energetikoko helburuen betetze maila, 2024. urtea

		Bete beharreko helburuak				Zer moduz goaz?	
		2020	2025	2030	2035	2024	Betetze bidearen balorazioa
BALORIZAZIOA-01	Hiri hondakin guztiak berrerabiltzeko gutxieneko balorizazio indizea lortzea		% 15	% 15		% 44,1	☹️
BALORIZAZIOA-02	Errauste eta baterako errauste instalazioetan sortutako material bioegonkortuaren balorizazio energetikoaren gehikuntza (baliorik zehaztu gabe)					% 100	😊

## 6.6 Deuseztatzeko helburuak

Azkenik, azpimarratu behar da Gipuzkoako Lurralde Historikoak gaur egun ez duela isurtzen batere hondakinik **deuseztatzera**, aurretik tratatu gabe. Hondakinak tratatzeko plantetan gertaturiko baztertzeetatik sorturiko isurketa portzentajea % 2,6 da, 2030erako planean helburu gisa ezarritako gehieneko % 10 baino askoz txikiagoa.

25. taula. Deuseztatzearen betetze maila, 2024. urtea

		Bete beharreko helburuak				Zer moduz goaz?	
		2020	2025	2030	2035	2024	Betetze bidearen balorazioa
DEUSEZ TATZEA-01	Aurretiatzko tratamendurik gabe isuritako hondakin kopurua mugatzea (t)	0t (2019)				0 t	😊
DEUSEZ TATZEA-02	Udal hondakinak deuseztatzeko indizea mugatzea	% 35		% 10		% 2,6	😊

## 7 GENERO INPAKTUAREN EBALUAZIOA

Emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko araudian xedatutakoaren ondorioetarako, Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Plan Orokorrari genero inpaktua ebaluatzeko prozedura ezarri zitzaion. Plana idaztean, aldez aurreko ebaluazio bat egin zen. Ebaluazio horretan, generoari dagozkion alderdiak identifikatu ziren, eta emakumeen eta gizonen arteko desberdintasuna ezabatzeko ekintzak eta neurriak aurreikusi ziren (43. taula. *Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Plan Orokorraren jarduerak, genero egokitasuna, eta ekintza gauzatzeak emakumeen eta gizonen berdintasunean eragin positiboa izango duela bermatzeko orientabideak*).

Atal honetan 2024an egindako ekintzen eta neurrien betetze mailari buruzko azterketa bat jasotzen da, taula horretan jasotakoa kontuan hartuta. Hona hemen laburbilduta:

*26. taula. Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Plan Orokorraren ekintzak taldekatzea, ekintza horiek emakumeen eta gizonen berdintasunean inpaktu positiboa izango dutela bermatzeko neurrien arabera.*

Ekintzak emakumeen eta gizonen berdintasunean inpaktu positiboa izango duela bermatzeko orientabideak	Ekintza
Emakumeentzako ekintza positiboak I+G+Ban, genero arrakala oso handia bada	PREBENTZIOA-2/BIRZIKLATZEA-5
Osaera orekatua sexuaren arabera	BEHATOKIA-4
Emakumeen eta gizonen erantzunkidetasuna sustatzen duten edukiak	PREBENTZIOA-3
Enplegu orekatua sexuaren arabera	PREBENTZIOA-11
Emakumeen eta gizonen gaineko inpaktuaren azterketa	PREBENTZIOA-1/PREBENTZIOA-5/GAIKAKO BILKETA-3/BERRERABILTZeko PRESTATZEA-3/BILKETA-2/BILKETA-3
Sexu bakoitzak erosketan duen eginkizunari buruzko azterketa	PREBENTZIOA-14/PREBENTZIOA-16/PREBENTZIOA-17
Emakumeen enplegu bermea I+G+Baren arloan	BALORIZAZIOA-1
Emakumeen eta gizonen parte hartze orekatua bermatzea deialdian eta esleipenetan, baldintza berdinetan	PREBENTZIOA-8
Erabiltzaileen posizioa identifikatzea, emakumeak edo gizonak diren kontuan hartuta	GAIKAKO BILKETA-1
Genero inpaktua enpleguan, osasunean, emakumeek eta gizonak hondakinen sorreran eta hautaketan duten eragina eta abar identifikatzea.	BALORIZAZIOA-2
Genero rolaen hausturan eragiten duten irudiak (emakumeak tradizioz maskulinoak izan diren roletan eta gizonak tradizioz femeninoak izan diren roletan)	BEHATOKIA-8
Emakumeen eta gizonen inplikazio erantzunkidea	PREBENTZIOA-6/PREBENTZIOA-9/PREBENTZIOA-18/GAIKAKO BILKETA-1/GAIKAKO BILKETA-4

Ekintzak emakumeen eta gizonen berdintasunean inpaktu positiboa izango duela bermatzeko orientabideak	Ekintza
Baldintza agerietan berdintasun klausulak sartzea	PREBENTZIOA-7/PREBENTZIOA-22/BILKETA-4
Sexuaren aldagaia edo eremua sartzea pertsonen informazioa biltzen duten datu baseetan	BEHATOKIA-2
Datuak sexuaren arabera bereizita dituzten txostenak, pertsonen buruzkoak badira	BEHATOKIA-3
Hizkuntza inklusiboa liburuxketan, dokumentazioan, karteletan...	BEHATOKIA-8
Informazio hauek erakustea: enpleguko genero arrakalaren murrizketan izan duen eragina, emakumeei emandako beken ehunekoa, emakumeek I+G+Ban izan duten parte hartzearen ehunekoa, hizkera ez-sexistaren erabilera maila, irudi ez-sexistak zein mailatan erabili diren, genero rolen hausturan eragiteko gaitasuna duten irudiak zein mailatan erabili diren, eta baliabide fisikoak sortzean eta hautatzean gizonen izan duten erantzunkidetasuna.	BEHATOKIA-5
Emakumeen elkarrekin eragile gisa parte hartzea	BEHATOKIA-7
Emakumeen parte hartzea enpresetan, nazioartekotze proiektuetan	PREBENTZIOA-2/BIRZIKLATZEA-5
Emakumeen eta gizonen parte hartze orekatua hizlari gisa, parte hartzaile gisa...	BEHATOKIA-8
Especialistaren edo genero ikuspegia aplikatzen dakiten pertsonen presentzia	BEHATOKIA-4
Herritarren inplikazioa eta, bereziki, emakumeen zeregina nabarmentzea	BIRZIKLATZEA-6
Hizkera berrikustea eta erabilera ez-sexistaren irizpideetara egokitzea	BEHATOKIA-2/BEHATOKIA-3/PREBENTZIOA-10/PREBENTZIOA-13/GAIKAKO BILKETA-1
Plan estrategikoan genero ikuspegia transbertsalizatzea	BIRZIKLATZEA-5
Emakumeek eta gizonen artean duten zereginaren ikuspegi tradizionala hausten duten irudiak erabiltzea	BEHATOKIA-2/BEHATOKIA-3/BEHATOKIA-8/PREBENTZIOA-10/PREBENTZIOA-13
Irudien erabilera eta hizkera ez-sexista	BEHATOKIA-7/PREBENTZIOA-14/PREBENTZIOA-16/PREBENTZIOA-17/PREBENTZIOA-18/PREBENTZIOA-20/BERRERABILTZEKO PRESTATZEA-5/GAIKAKO BILKETA-4
Informazioa sexuaren arabera bereizita erabiltzea, emakumeen eta gizonen eginkizun potentziala identifikatzeko	BALORIZAZIOA-2
Hizkera ez-sexista erabiltzea, bai eta genero rola hausten eragiten duten irudiak erabiltzea ere	BIRZIKLATZEA-5
Genero ikuspegia erabiltzea analisiaren interpretazio esparru gisa, emakumeen eta gizonen eginkizun desberdinen kausak identifikatzeko eta, ondoren, erabaki informatuak hartzeko.	BALORIZAZIOA-2

Ekintzak emakumeen eta gizonen berdintasunean inpaktu positiboa izango duela bermatzeko orientabideak	Ekintza
Desfileetan tamaina estandarreko modeloak erabiltzea	PREBENTZIOA-2
Jardueretan genero arrakala murrizten dela zaintzea	PREBENTZIOA-2/BIRZIKLATZEA-5
Emakumeen eta gizonen parte hartze orekatua zaintzea, bai hizlari gisa, bai parte hartzaile gisa...	BEHATOKIA-7/BEHATOKIA-8
Enpleguan genero arrakalak areagotzen ez direla zaintzea	BERRERABILTZEKO PRESTATZEA-1/BIRZIKLATZEA-1

Aipatu behar da ekintza batzuk ez direla ondo ebaluatu, ez zirelako egokitzat jo genero ikuspegitik (BEHATOKIA-10, PREBENTZIOA-21, GAIKAKO BILKETA-2 eta DEUSEZTATZEA-1); dela 2024an exekutatu behar ez zirelako (BEHATOKIA-9 ETA BERRERABILTZEKO PRESTATZEA-2); dela 2024. urtea baino lehen amaitu direlako (PREBENTZIOA-15, PREBENTZIOA-19, BERRERABILTZEKO PRESTATZEA-4 eta DEUSEZTATZEA-2); dela ez direlako gauzatu aurreikusita egon arren (BEHATOKIA-6 eta PREBENTZIOA-4).

Azken urteotan, Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Plan Orokorrean aurreikusitako ekintzak gauzatzea premisa batekin definitu da: neurri bakoitzean sexu bakoitzak egiten duen ekarpena optimizatzea. Prebentzio programaren ekintzetatik hasi eta balorizazio programaraino.

Zehazki, Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Plan Orokorra gauzatzeko aldian, premisa hauek jorratu dira:

- Sexu osaera orekatua duten bileren deialdiak sustatzea (mahaiak, batzordeak, lantaldeak...).
- Baliabideetarako irispidean eragitea, eskura izan ditzaten bai emakumeek, bai gizonak; hori guztia lortzeko, askotariko bideak baliu daitezke, hala nola sortzen den enplegua, egiten diren prestakuntza, bekak, ematen diren aintzatespen eta sariak, antolatutako ponentzia eta hitzaldiak, egiten diren dirulaguntza eta kontratuak, lizitazio pleguak (baldintza agiritan berdintasun klausulak txertatuz, adibidez) eta abar.
- Genero rolen hausturan eta emakumeen eta gizonen rolaen ikuspegi estereotipuetan eragiten saiatzea, udal hondakinak sortzeari eta tratatzeari dagokionez, bai egin diren kanpainetan, eta beste horrenbeste egitea, orobat, prestakuntza ekintzen edukietan, eta kontsumo ohiturak, hondakinen hautaketa, birziklatzea eta abar aldatzeko egin diren jarduerak guztietan.
- Sentsibilizazio kanpainen diseinuan genero rolen hausturan eragina duten irudiak zaintzea (emakumeak tradizioz maskulinoak izan diren egitekoetan, eta gizonak tradizioz femeninoak izan diren egitekoetan). Edo hizkera ez-sexista erabiltzea karteletan, liburuxketan eta abarretan, eta hizkuntza inklusiboa bultzatzea.

Hona hemen 2024an egindako ekintzen adibide batzuk:

- BEHATOKIA-8.1 Hondakinak Prebenitzeko Europako Astea egitea. Hondakinak Prebenitzeko Europako Astearen esparruan garatutako ekintzak askotarikoak dira, eta guztiek dute potentzial handia emakumeen eta gizonen parte hartze orekatua bermatzeko, hala nola

egindako ekitaldietan hizlari eta parte hartzaile gisa, hizkuntza inklusiboa erabiliz liburuxketan eta sortutako karteletan, eta genero rola hausten dituen material grafikoa baliatuz. Egindako ahaleginaren ondorioz, 2024an emaitza onak ikusi dira puntu horri dagokionez:

- Gipuzkoako Elikagaien Bankuaren aldeko afari jasangarri eta solidarioan 27 emakume eta 36 gizon izan ziren.
- GK Recycling karpan gizonen presentzia emakumeena baino handixeagoa izan zen. 2024ko edizio honetan GK Recycling Klusterreko 9 enpresak parte hartu zuten guztira, eta horietatik 5 emakumeek ordezkatzan zituzten.
- Naturklimako Moda Jasangarriaren IX. Desfilean emakumeen presentzia % 70etik gorakoa izan zen.
- Aurten, Prebentzioaren Astean antolatutako ekitaldien artean, Gipuzkoako Emakumeak Jasangarritasunaren Alde saria nabarmendu da. Zazpi hautagai aurkeztu dira sariketa horretara. Sariaren epaimahaia lau emakumek eta bi gizonek osatzen zuten.
- **PREBENTZIOA-2.5:** *GK Green Fashion klusterrak Be Veggie! azokan parte hartu zuen 2024ko edizio honetan 4 enpresak parte hartu zuten, guztiak emakumeak.*
- **PREBENTZIOA-8.1:** *Ekonomia zirkularreko bekak.* Oinarri arautzaileetan eta deialdian txertatzen zen genero ikuspegia, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko, balorazio irizpideak baliatuz eta oinarri arautzaileetan ezarritako pertsona fisiko onuradunen betebeharren bidez. Azken urteetan ekonomia zirkularren arloan ikerketa eta berrikuntza proiektuak garatzeko onuradun izan diren emakumeen kopurua handiagoa izan da gizonena baino, urtekako banaketa honek erakusten duen bezala.

27. taula. *Ekonomia zirkularren arloan ikerketa eta berrikuntza proiektuak garatzeko GFaren beken onuradunak (2019-2024)*

	2019	2020	2021	2022	2023	2024
Emakume kopurua	3	4	2	3	1	2
Gizon kopurua	1	1	3	2	2	1

- **PREBENTZIOA-10.10:** *Gure planeta zaintzen: Elikagaiak alferrik galtzea, jasangarritasuna eta klima aldaketa ikasgelan.* 2024an 32 tailer eman dira (bakoitza 2 saiotan) 9 ikastetxetan, eta 10 eta 14 urte bitarteko 260 neska eta 247 mutilek parte hartu zuten.

# C ZATIA: ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

## 8 ONDORIOAK

**2024rako aurreikusitako ekintzen betetze maila** kontuan hartuta, ondoriozta daiteke balantze orokorra oso ona dela, gauzatze maila % 98koa baita. Programa guztiek % 100eko betetze maila lortu dute, Behatokiaren Programak eta Prebentziokoak izan ezik, horien gauzatze mailak % 89 eta % 95 baitira, hurrenez hurren.

2024ko datuak azertu ondotik, eta Gipuzkoako udal hondakinen sorreraren eta kudeaketaren bilakaerari dagokionez, ikus daiteke 322.616 tona hondakin **sortu** direla 2024an, iaz baino % 1,31 gehiago (4.180 tona). Datua apenas aldatzen den; horrenbestez, oraindik ere gogotik lan egin behar da Prebentzio Programan, 2025ean udal hondakinen sorrera % 13 murrizteko helburua lortu ahal izateko (2010arekin alderatuta). 2024an, murrizketa hori % 7,4koa izan zen.

**Berrerabiltzeko prestaketa tasa** hiri hondakin guztien % 1 da. Gipuzkoako Lurralde Historikoak baditu helburu horren emaitzak hobetzeko neurriak, kontuan izanik 2025. urtean % 5eko balioa izan behar duela. Besteak beste, Berrerabilerarako Prestakuntza Zentroa martxan jartzea. Datozen urteetan, neurri horiek martxan jarriko dira eta indize horretan aldaketa nabarmena ekarriko dute.

**Gaikako bilketa eta bereizketa tasa**, GIG1 eta GIG2 guneeetan masan jasotako bilketa selektiboaren eta birziklagarrien bereizketaren batura gisa zenbatuta, 20 puntu inguru handiagoa da gainerakoen frakzioa baino, eta % 59,2koa da, 2023an baino ehuneko 0,1 puntu gehiago.

2024ko **birziklatze** tasa % 52,8 da, eta gertu dago Europak 2025erako duen % 55eko helburutik. Nabarmentzekoak dira beira, papera eta kartoia, eta ontzien frakzioak, 2024an jada gainditzen baita Europak 2025erako ezarritako helburua. Datu positibo hori gorabehera, beheranzko joera txiki bat nabari da, eta gertutik jarraitu beharko da.

Bestalde, **balorizazio energetikoa** izan dezaketen hondakinak —hala nola bioegonkortua— balorizazio energetikora bideratzen dira oso-osorik, maila gailenagoko planek sustatzen duten bezala.

**Isurpenei** dagokienez, Gipuzkoako Lurralde Historikoak gaur egun ez du isurtzen batere hondakinik aurretik tratatu gabe.

Oso positiboa da Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Plan Orokorraren aurrerabideari buruzko balioespen orokorra, bai eta indarrean dagoen legeriaren eta plangintzaren arabera bete beharreko ingurumen adierazleena ere. Datozen urteetan ezarri beharreko hobekuntza alderdiak dagoeneko bilduta daude plan horretan jasotako programa bakoitza gauzatzeko plangintzaren barruan.

Nagusiki, ekintza hauei eman beharko litzaieke lehentasuna: hondakinen sorrera prebenitzea, berrerabiltzeko prestakuntza sustatzearekin lotutako neurriak ezartzea, lurralde osoan zabaltzea Europan arrakasta erreferentzia diren sarbide kontrolen bidez hondakinak biltzeko ereduak, eta birziklatze indizeak handitzen jarraitzea bermatuko duten neurriak finkatzea.